



ARGIA

“Pelikula autokonplazientea egin nahi izan banu, beste zer bait egingo nukeen”

Arantza Santesteban

918 gau filmaren zuzendaria

40-44. orriak

**+ Punto de Vista 2022
jaialdiaren aurrerapena**



**Ohar ekologistak
Ukrainako gerraz**

11 | NAZIOARTEA



**Zergatik behar du
langile klaseak errenta
unibertsala?**

27 | EKONOMIA



**“Hautua da nire
burua plazandre
gisa definitzea”**

32 | INES OSINAGA

2. argitaraldia



Sendabelarrek dakitena

EZAGUTU, BILDU ETA ERABILI

Garbiñe Larrea



248 orrialde

25€

+ 4€
bidalketa
gastuak

40€-tik gorako
erosketetan,
bidalketa doan.



azoka.argia.eus 943 37 15 45

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik 08:00etatik 15:00etara
(beste ordutegiak aurrez kontsultatu).



ARGIA

BIZI BARATZEA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 17 | IRATI LABAIEN
- 18 | JUNE FERNANDEZ
- 19 | ZIGOR ETXEBURUA
- 19 | LAURA MINGE
- 20 | AHOZTAR ZELAIETA
- 21 | TAMARA CLAVERÍA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 36 | DENBORAREN MAKINA
- 37 | ARGIA KOMUNITATEA
- 38 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
MAIA MURUAGA
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



HODEI TORRES

27 | OINARRIZKO ERRENTA UNIBERTSALA

Katalunian Oinarrizko Errenta Unibertsala ezartzeko proba pilotua egiten ari dira eta bertako arduradun Sergi Raventós elkarriketatu du Iñaut Gonzalez de Mataukok. Ekonomikoki bideragarria dela eta osasun mentalean onura handiak dakartzala azaldu du, besteak beste. Horrez gain, egile berak erreportajeaz azaldu ditu munduan zein lekutan ari diren probak egiten, eta zer emaitza jasotzen ari diren.

Elkarrizketak eta erreportajeak

11 | UKRAINAKO GUDA

Ohar ekologistak Ukrainako gerraz

Herve Kempf / Reporterre

14 | UKRAINAKO GUDA

“Militarizazio burugabeak gudara eramango gintuela ohartarazten urteak generamatzan”

Amy Goodman / Juan González

22 | PERTSONAIA | ALDO RUBERT

“Klase popularrak ez daude desmobilizaziora kondenatuta”

Danele Sarriugarte

32 | FEMINISMOA | INES OSINAGA

“Nik ez dut nire ahizpekin lehiatu nahi, elkarri autoritatea eman baizik”

June Fernandez

40 | KULTURA | ARANTZA SANTESTEBAN

“Gutako bakoitzaren intimitatean intimitate komun bat dago”

Kepa Matxain

45 | KULTURA | PUNTO DE VISTA 2022

Bertakoa eta nazioartekoa

Ainhua Gutiérrez del Pozo

Jabetza

Komunikazio Biziagora
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA





Borrokatzen direnak

Kolonialismoari izena eta izaera eman zizkion lehen gizon zuria omentzeko leku pribilegiatua zena, emakumeen gorputzak deskolonizatzen ari den mugimenduak bereganatu du. Amerikako hiririk handieneko bihotzean, inori baimenik eskatu gabe. Egunero batez beste 10 emakume hiltzen dituzten herrialdean, martxoaren 8aren harira eta jai giroan. Ba al da era grafikoagorik feminismoaren borrokaren muina adierazteko? "Borroka egiten duten emakumeen monumentua da, biolentziei, errepresioari eta bidegabekeriaren aurkako birbiktimizazioari aurre egin dietenei eskainita", adierazi dute, Mexikon ikur bilakatu den silueta morea idulkian ezarri ostean.

 SASHENKA GUTIÉRREZ / EFE  AXIER LOPEZ



EUSKAL IRRATIAK

Ahateen prebentziozko hilketa saihestea lortu dute

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Ehundik gora lagun elkartu ziren joan den astean Ilharren (Nafarroa Beherea) Bidarteberría etxaldearen aitzinean, zerbitzu sanitarioko ordezkariak bidea mozteko. Hegazti gripearen testuinguruan, 200 ahateren hiltzea oztopatzea lortu dute.

Hiru aste lehenago, etxaldek hiru kilometrotara den Gabadin hegazti gripe kasu bat atzemanik, "prebentiboki" hil behar dituzte Ilharreko Bidarteberríako 200 ahateak. Zentzugabekeriartzat jota, ELB sindikatuak ez du erabakia onartzen eta horregatik luzatu zuen hilketa egunean bertaratzeko deia.

150 bat lagunek erantzun zioten deia eta guztien artean moztu zieten bidea zerbitzu sanitarioko ordezkariak. "Gizarteak eta ELB sindikatu azkarrak oztopatu dute ahateen hiltzea", adierazi zuen Julen Perez ELB sindikatuak ahate hazleak. Martxoaren 18an bukatuko dute 200 ahate horien hazkuntza, eta "bazterrak lasaitzeko" gisan, epe hau errespetatzea eskatu du etxaldeak. Patrick Lagorret ELBko kideak ondokoa zehaztu nahi izan dio Kazeta.info komunikabideari: "Ez da garaipena, gaur soilik gure kexua adierazi dugu. Badakigu administrazioa itzuliko dela, edo bederen auzitegiatar eramango gaituela".

2017an Frantziako Estatua hiltze prebentiboekin hasi zenean, hiru etxaldek antolatuta zituzten herri harresiak, ahateen hiltzea oztopatuz. Orduz geroztik, gatazka konpondu gabe dago eta ELBk behin baino gehiagotan deitu du mobilizaziora. Sindikatu horren arabera, nekazaritza eredu intentsiboa da arazoaren oinarrian, eta hazkuntza

Nekazaritza eredu intentsiboa da arazoaren oinarrian, eta hazkuntza txiki herrikoia dira aterabideak

txiki herrikoia dira aterabideak. Ondokoa dio ELB sindikatuak: "Ingurumena zaintzen, etxalde anitz atxikitzen eta kalitatezko mozkinak ekoizten dituen laborantza herrikoia aldeko borrokan segituko du ELB sindikatuak. Jendar-teak nahi duen laborantzaren aldeko borrokan. Sistema industriala bera eta horrek sortzen dituen ondorio txarrak gelditu behar dira". ●

Espioitza leporatu diote Pablo González kazetariari

ERREDAKZIOA

Gonzalo Boye abokatuak azaldu duenez, espioitza delitua leporatu dio Poloniak Pablo González kazetari bizkaitarrari. Behin-behinean kartzelan sartu dute. Otsailaren 28an atxilotu zuten, Ukrainako gerrari buruz informatzen ari zenean.

"Lau egunen ondoren, orain informatu gaitu Espainiak Polonian duen kontsulatuak Pablo González espioitza delitua leporatzen diotela, Poloniako Zigor Kodearen 130.1 artikuluan oinarrituta; eta behin-behinean kartzelan sartu dutela Rzeszów-ko espetxean", idatzi zuen Boyek Twitterren, martxoaren 3an. Kazetari bizkaitarra otsailaren 28an atxilotu zuten inkomunikatuta, Ukrainako gerra jarraitzen ari zela.

Ez da atxilotu duten lehen aldia: pasa den hilabetearen hasieran, Errusiaren inbasioa hasi aurretik Donbassen lanean ari zela, Ukrainako zerbitzu sekretuen deia jaso zuen, Kievera joateko eskatuz, galdeketa bat egin nahi ziote-lako. Kieven egindako galdeketa horretan "errusiazale" izatea leporatu zioten Ukrainako agenteek, baita Gara egunkariarentzat lan egin izana ere. Horren ondoren, Ukrainatik alde egitera "gonbidatu" zuten, *Público* egunkariaren arabera.

Horren ondoren, Espainiako Inteligentzia Zentro Nazionala (CNI, gatzelaniazko sigletan) sartu zen jokoan: González hurbilekoen etxeetan agertu ziren zerbitzu sekretu espainiarreko agenteak, hainbat galdera eginez: "errusiazale" ote zen baieztatu nahi zutela dio *Público*-n Esther Rebollo kazetariak.

Gonzálezek bisita horien berri izan zuenean, Ukraina utzi eta Euskal Herri-
ra etorri zen. Errusiak Ukrainaren aurkako inbasioa hasi zuenean, Varsoviara bidaiatu zuen, handik Polonia eta Ukrainaren arteko mugara joateko. Gerrak eragindako migrazio-krisia jarraitzen ari zen atxilotu zutenean.

Bere herrian, Nabarnizen, elkarretaratzera egin dute, aska dezatela eskatuz. ●

Valéryren Europa



ARITZ GALARRAGA

Europarra naizela esan nezake, eta, ondorioz, europar den guztia ez zaidala arrotz. Hara hor gustura asko sinatuko nukeen sententzia bat. Baina zenbateraino da egia epai ponposo hori? Orbanik ez balu, berdin litzaidake Paris, Erroma, Berlin, Katowice, Timisoara, Tallinn, hiri bereko auzo ia, sorterrri. Melodia zerutiar bera lirateke, belarri gogortu hauentzat, galego, ladino, gales. Gertuagoko, etxeko, sentituko nituzke ukrainar iheslari begi-urdira ilehoriak, errusiarrengandik eskapo doazenak hartzen dituzten poloniar, eslovakiar, errumaniarrei gertatzen omen zaien bezala, nik zer dakit, Siriako edo Afganistango errefuxiatuak baino. Baina, kontxo, uste dut ez dela hala. Arrakalarik ba ote da nire europartasunean? Ba ote da europar on, oso, pedigridun izateko modu bat?

Paul Valéry datorkigu laguntzera. Sète hirian jaioa –Georges Brassens bezala, Agnès Vardak filmatu zuen hartan–, fidel mantendu zitzaion azkenera arte sortzen ikusi zuen leku-inguruneari. Izan ere, hegoaldeko poeta izan zen Valéry, Marseilla, Niza, Genova, horiek zituen ainguraleku, konfort hiriak, munduari begiratzeko ikuspegiak. Valéryk amestu zuen Europak, ondorioz, sardina errearen urrina zeukan. Ardo gorria edo Porto ardoa edaten zuen garagardoa edo bourbona baino. Palmondoa zeukan, ez haritza bere armarrarian. Atlantikoaren partez, Mediterraneoa bustitzen zuen –“itsaso bat baino gehiago, izaera bat”–. Eta, lingua franca gisa, italiera, espainiera, portugesa, frantsesa lehenesten zituen, kontinentea kolonizatu duen globish horren aurrean. Baikei, Valéryk hegoaldeari emandako baieztokak, Albert Camusen kasuan bezala, iparraldeari, ekialdeari emandako ezezkak dakar bere baitan.

Valéry, broma gutxi. Autore intimidatzaileagorik. Gaur egungo munduaren gaineko haren begirada interesatzen zait. Régis Debrayk definitu bezala, Valéry izan baitzen XIX. mendeko poeta, XX. mendeko pentsalari, gure XXI. mendeko kronikagile –1945ean hil bazen ere–. ●



Etxegabeak

Bilboko Udalak hesiak ezarri zituen pasa den abenduan Atxuri auzoko kirolgunean, etxerik gabeko migratzaileek bertan lo ez egiteko. Pertsona horiekin elkartasunez hainbat lagunek hesiak bota dituzte orain, “arrazakeria eta xenofobiaren” aurka eta “guztiontzako auzo duina” defendatzeko.

Marikobaso

Marikobaso espazioa jaio da Derion, lau ardatzen gainean: euskara, feminismoa, kultura eta ekologismoa. Martxoan irekiko ditu ateak, azkenaldian egindako auzolanei esker ezagutzera emateko pronto baitago. Egunotan, diru-bilketa kanpaina ari dira egiten.

Biktimak

Mikel Zabalza estatu indarkeriaren biktima gisa aitortu du Eusko Jaurlaritzak. Otsaila bukaeran, Zabalzari omenaldia eskaini zioten senideek. Bertan izan ziren Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuako ordezkariak ere. Jaurlaritzak Zabalza biktima gisa aitortu eta senideei lege dagokien kalte ordaina pagatu die.

EKONOMIA

Hirugarrenez, zer egingo dugu?



AINHOA ETXAIDE
AMORROTU

Ez naiz ni aditua, ezta aritua ere geopolitika kontuetan. Ez dakit oraingoan zer irabaziko duten AEBek, zer Errusiak, edota non geratuko den Europar Batasuna boterearen nazioarteko banaketan Ukrainiako gerran emandako jauzia eta gero. Baina huts egiteko beldur gutxiarekin esango dut potentzia inperialisten arteko nork-zer kontrolatu guda amaigabeen, erabakietan eta bere ondorioetan inolako kontrolik ez dugunok galtzen dugula beti, ez dugulako nola irabazi.

Macronek Parisen batu zituen Europako enpresa multinazional nagusietako buruak. Botere ekonomikoaren eta politikoaren arteko bilera, oihartzun eskasekoa, baina segur aski mugarrira EBren erabakietan. Ondoren etorri dira armak, gastu militarra, zigor ekonomikoak... eta ondorio ekonomikoetarako prestatzeko agintarien diskurtso solemneak. COVIDaren krisiak utzitako kalteak zuzentzeko benetako planik ez, eta krisi sistemikoa motzean areagotuko duten erabaki berriak.

Macronek eta Sánchezek ondorio ekonomikoak iragarri dituzte eta dei egin dute guztiok bat egin dezagun, 2008an bezalaxe, halako krisiaren aurrean klase interes kontrajarririk dagoenik ukatuz. Madriletik "plan nazionala" egiteko deia, Parisetik Europa osoak honetan bat egin duela.

Mundu guztian ondorioak izango dituen hirugarren krisia 2008az geroztik, eta begira gaituzte berriro, edo begirale nahi gaituzte. Gure esku dago horrela ote den onartzea. Aukera berri bat dugu nazio gisa eztabaidatuz gure ekonomia- ren, bizitzaren eta etorkizunaren kontrola pixkanaka eskuratzeko balio behar duen nazio plana egiteko bideari ekiteko. Kalte ekonomikoak saihesterik ez dugu, borrokatzea posiblea da ordea, langileok ordaindu ez ditzagun. ●

ANALISIA



ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Feminismoaren eta langileen borrokak uztartzen ditu Emakume Langileen Eguna den martxoaren 8ak. 1911tik seinalatutako eguna den arren, oso berria da lan eremuko indarkeria matxista eta jazarpen egoerak lantzeko araudia: Nazio Batuen barruko erakundea den Lanaren Nazioarteko Erakundeak 2019an onartu berri du lan munduko indarkeria eta jazarpenak bukatzeko hitzarmena. Eta gaur gaurkoz munduko lau herrialdetan soilik dago indarrean: Argentina, Fiji, Namibia eta Uruguayan. Datozen hilabeteetan beste sei herrialde hauetan aktibatuko dute: Ekuador, Grezia, Italia, Maurizio, Somalia eta Hego Afrika. Haien menpeko gaituzten Espainiak eta Frantziak oraindik ez dute nazioarteko hitzarmen hau onetsi ere egin.

Ez ote goaz duintasun berme oso eskasarekin emakumeok lantokira egunero? Justu emakumeen askapenarekin lotu izan den enplegu horretara? "Garapen pertsonala", "ahalduntzea" eta gainerako hitz ponposoekin janzten dugun eremura? Klase borrokak erakusten dituen hierarkia eta indar-harremanen jokozelai mixto horretan, gainera generoaren aldagaia, arrazarena eta gainerakoak gehitzen zaizkionean, botere gehiegikeriak gertatzen direnean, zer egin, nola jokatu? Emakume enpresarientzako sari distiratsu asko, baina lantokiko erasoaren aurrean babesa larrugorritan dago, bere burua morez margotzeari ekin dion ustez herri "aurreratu" honetan.

Europako Osasun Mentala GKEak liburuxka bat atera zuen 2013an, lantokian indarkeria pairatzen zuten emakumei eta lantokiko arduradunei erremintak emateko asmoz.

JASATEN DUTEN EMAKUMEEK UKATU EGITEN DUTE ETA ISILDU

Europako Osasun Mentala GKEaren liburuxkak argi dio lantokian erasoak jasaten dituzten emakumeek normalean ukatu egiten dutela egoera hau. Garrantzia kentzen diete gertakizunei eta zerbait ohikoa balitz bezala hartzen dute, hau da, ez dute jazarpena ikusten. Hau guztia autodefentsa mekanismo bat da, GKEaren arabera. Liburuxkan, langileak jazarpena identifikatu ahal izan dezan bere buruari egiteko galdera hauek ematen dituzte: ados nago erasotzailearen portaera horrekin? Enbarazu zait portaera hori? Nire duintasuna urratzen du? Lan eremu seguru batean duintasunez lan egiteko dudak eskubidea urratzen du?

Liburuak dio espero ez dena egin behar duela langileak: gertatutakoak hitzetara ekartzea, erasotzaileari zuzenean esatea zer egin duen, ekintza zehatzak definitzeko hitz zehatzak erabiliz. "Egizu erasotzailea bere ekintzen erantzule. Ez bilatu berarentzako aitzakiarik, ez ezazu antzeztu gertatu ez zenik". Eraso hori bukatzeko eskatu behar dio langileak, serio, gorputz jarrerara irmoz lagunduta. Lotsa eta erruduntasuna da emakume gehienek halako egoeretan sentitzen dutena. Baina liburuxkak oroitarazten duenez, "gertakizunak ezkutatzeko erasotzailea babesten du, ikusarazteak ahuldu egiten du". Horregatik, liburuxkak gomendatzen du gertatutakoaz beste lankideekin hitz egitea, posible delako beste emakumeak ere antzekoa jasaten egotea. Enpresan gai horren arduradun izan daitekeenari ere egoera azaldu behar zaio, eta sindikatura jo.

Liburuxkak hainbat oinarri ematen ditu enpresak sexu jazarpenaren aurkako politika bat garatu eta praktikan ezarri dezan. Zure lantegian ba al da halakorik? ●

850.000

euro balio ditu Frantziako Tourraren Donostiako etapak. 2023ko Frantziako Tourraren bigarren etapa Donostian bukatuko da, eta horren inguruko hitzarmena onartu du Donostiako Udalak.

57

ikastetxe publiko eta itunpekorik jardunaldi jarraitua edo malgua onartu die Nafarroako Gobernuak hurrengo ikasturterako, eta hiru ikastetxeri ukatu egin die, "ebazpenean ezarritako baldintzak ez betetzea" egotzita.

"46 urteren ondoren injustizia eta zigorgabetasuna dira nagusi"

MARTXOAK 3 ELKARTEA

Martxoaren 3an 46 urte bete dira 1976an Espainiako Poliziak Gasteizen greban bildutako langileen aurka egin zuenetik, bost pertsona hilez eta ehundik gora zaurituz. "Justizia egin dadila lortzeko lanean jarraitzeko asmoa" agertu dute.

2022-03-03

"Euskarazko haur-eskolak auzo guztietara ez zabaltzea da aukera berdintasuna ez bermatzea"

IRUÑEKO EUSKALGINTZA

Hirian dauden hamabi udal haur-eskoletatik bakarra dago euskaraz murgiltze ereduari –eskainiko diren plaza guztietatik %12,16a baino ez–. Eskaintza murriztu hori haurren hizkuntza-eskubideen aurkako "eraso zuzena" dela salatu dute.

2022-03-01

"Garaiz gaude neskatoei beste etorkizun bat eskaintzeko, haien gorputz eta itxuraren gaineko presiorik gabe"

EMAKUNDE


Emakumeen edertasun-kanon zorrotza eta hipersexualizazioa ekarri ditu mahai gainera Emakunderen M8ko kanpainak.

2022-03-08



%96

Gure planetako ugaztunen %96 dira gizakiak eta gizakiek esplotaturiko animaliak.



Ukraina eta internet



DIANA FRANCO

Ukrainan dauden herritarrengatik arduratuta, laguntzen saiatzen ari da jende asko. Eremu digitalari lotuta, bi laguntza ekintza interesgarri ezagutu ditut. Bate-tik, harritu nau Pussy Riot Errusiako punk taldeak Ukrainako herritarrei laguntzeko 6 milioi eurotan baloraturiko kriptotxanponak lortu dituen moduak. Bigarrenik, Elon Musk magnateak hain polemikoa den Start Link proiektuaren satelite batzuk Ukrainaren gainean jarri ditu, interneterako sarrera-laguntza herritarrei ematea helburu.

Pussy Rioten ekintzak erakutsi du NFTa (*non fungible token* delakoa) laguntza ekonomikoa bideratzeko aukera bat dela. Nik neuk, NFTak espekulatze baina ez nituen ikusten orain arte. Kriptotxanponak lortzeko, Pussy Riotek Ukrain DAO (Decentralized Autonomous Organization) izena duen NFTa sortu du: Ukrainako banderaren irudia, laguntza adierazten duen testu batek lagunduta. Ideia hain ona izan da, aktibismorako bide bat bilakatu daitekeela, gardentasuna eskaini eta pribatutasuna zaintzen duen Blockchain teknologia erabilia.

Elon Musken ekintza ere garrantzitsua da Ukrainako herritarrentzat, euren telekomunikazio azpiegiturak deuseztatuak izaten ari diren egun hauetan. Azpiegitura horiek erabiltzeko segurtasun gomendioak ere partekatu ditu Muskek, jakin badaki-eta sateliteen seinaleak errusiarrek jaso ditzaketela.

Internet sustatzen duten azpiegiturak behar dituzte bi ekintzek: Pussy Rioten ekintzaren atzean azpiegitura eta sare banatuen ideia dago –neurri handi batean kriptotxanponen inguruan espekulazio, botere eta azpiegitura kontzentrazio handia dagoen arren–. Elon Muskena, azpiegituren kontzentrazioak ematen duen boteretik dator. Muga guztiak gainditu ditzakeen azpiegitura baten boterea erakusten du, herrietatik harago, espazioan, eta erakunde pribatu bakar baten eskuetan. Urgentzia garaian gaude, eta dena da ongi etorria, baina zeinen interesgarria den ikustea teknologia eta azpiegitura hauek eragiteko duten ahalmena. ●



Zentsura, herritar inozoontzat

AXIER LOPEZ

Informazioaren kalitate eta aniztasun eza dira sintomak, ondoren “gerraren lehen biktima egia da” esaldia errazten dutenak. Eguntan abiadura bizian ari gara ikusten sintoma horien hedapena, pentsaezinak ziren neurriak justifikatzen dituen gerra baten erdian. Icebergaren punta Europako estatuen operazio politikoa izan da Europa osoan bi komunikabideren emisioak zentsuratze: Russia Today eta Sputnik. Horretarako, AEBetako bi multinazional nagusiren laguntza aparta izan dute: Meta (Facebook, Instagram, WhatsApp...) eta Alphabet (Google, Youtube...).

Zein da argudioa? “Gerran gaude eta bi komunikabide horiek etsaiaren aldekoak dira”. Eta ez zaie arrazoirik falta; hedabideetako zuzendaritzek, salbuespenik gabe, ordaintzen dienari kasu gehiago egiteko joera “bitxia” eta oso zabaldua baitute. Horregatik, adibidez, euskal herritar gehienok RT eta Sputnicken aurkako zentsuraren albistearen berri izan dugu %100ean bankuenak edo multinazionalenak diren edo alderdi politikoek/gobernuek kontrolatutako hedabideen bitartez. Europak sortutako lubakitik informatzen duten komunikabide horiek ez dute ildo editoriala ezkututzen, irakurlea dikotomia sinplista baina efektista baten aurrean jarritz: zuri ala beltz, nirekin ala bestearekin, demokrazien hedabideak ala Errusiakoak.

Herritarrak inozotzat hartuta, zer irakurtzeko irizpiderik gabeko sub-

jektu gisa, informazioa kontrastatzeko, aurka egiteko edo jarrera propio bat sortzeko gaitasun kritikorik gabe utzi dute biztanleria. Denon “hobe beharrez” zentsuratu dute.

EBren ekimena izan da, EBko herritarrei zuzendutakoa, EBko Europako balio gisa aldarrikatzen dituen askatasunen esparrua murriztu duena. Bide batez, Ukraina europar-zaleak beretzat nahi duen askatasun eremua. “Askatasuna” lortzeko, askatasunak murriztu behar, omen. *Hard power* Josep Borrell nazionalista espainiarrak eta GALEko torturazailen lagunak esana, orain EBko *mamporrero* lanak egiten dituen Europako Atzerri eta Segurtasun Politikarako ordezkartzatik.

Europako botere eremuek, Interneteko multinazionalen ezinbesteko laguntzarekin eta tabernako McCarthyisten erara, “errusiazale”, “propaganda” eta “desinformazio” etiketak jartzeari ekin diote. Erraztasun osoz ari dira, eta kritika sozial handirik jaso gabe. Hedabideen, kazetarien eta sare sozialen erabiltzaileen aurkako zentsurak –baita kontu zatar hauetan historial luzea duen Putinen gobernuak egindakoak ere– disidentziaren jazarpena legitimatzen du, munduan barrena “terrorismo” kontzeptuaren aterkipean egin dutenaren antzera. Euskal Herrian horretaz zerbait badakigu.

RT eta Sputnicken zentsura aurrekari arriskutsua da adierazpen askatasunaren eta informaziorako eskubidearen arloan. ●



Gas naturala erauzten
duen Gazprom konpainia
erraldoiaren instalazioak.

GAZPROM

Ohar ekologistak Ukrainako gerraz

Errusiak Ukraina inbaditzea bada gauza baten erakusgarri: energia-baliabide handien jabe izatean oinarritutako botere orekarena. Europa zaugarri geratu da ez duelako abian jarri klima-aldaketaren aurrean derrigorrezkoa den energia aurrezteko politika bat.

COVID pandemiak mundu osoa astindu zuen moduan, di-da batean lehertuz aurreikus zitekeen fenomeno bat, esan liteke Errusiak Ukraina inbaditu izana gong baten antzekoa dela, pentsaezina beti posible dela modu izugarrian oroitazten diguna.

Ez gara hasiko hemen esaten ikusi genuela zer zettorren: ez dugu ezer ere ikusi. Komeni da, bestalde, nabarmentzea “gerra berriro datorrela” eta espezialistek idatzitako liburu askotan ez zela hitz bat esaten Errusiaz, zentratzen ziren Txinaren eta AEBen arteko tentsioan. Baina orain gerra –urrutiko lurraldeak nola suntsitzen zituen ikustera ohituta geundena– gure bizimodu eroaren atarira hurbiltzeak eragiten digun ikararen erdian, ez dago soberan arazoa ikuspegi ekologista batetik argitzen saiatzea.

Argi geratu da Errusiaren apustua –edo behintzat bere gaurko lide-rrena– ezin dela ulertu jokoan dauden baliabideak analizatu barik, dauden menpekotasunak eta klima-aldaketak ekarriko omen dituen ondorioenak. Errusia sekulako petrolio eta gas kopuruen jabe da, eta uste da hauek are eta gehiago ugarituko zaizkiola planetaren beroketarekin Artikoko itsasoko jelak urtuko direnean. Horregatik, bereak dira munduan hautemanik dauden bigarren petrolio erreserba handienak, Saudi Arabiaren ondotik. Errusiako petrolio ekoizpenaren beherakada ez bide da gertatuko 2030a arte. Hidrokarburozko altxor ezkutu hau dela medio, erabat horien menpeko dagoen munduan, Errusia bilakatu da bai Europarentzako eta bai Txinarentzako bazkide konplikatu baina nahitaezkoa.

Errusia bada laborantzako potentzia liderretakoa ere eta pentsatu behar da planetaren berotzearekin baliabide hau handituko duela, nahiz eta espezialisten artean eztabaida dagoen honetaz. Ukraina ere laboreen altxor garrantzitsua da eta hau ere badaukate jomugan errusiarrak beren inbasioarekin, Donbaseko ikatz eta bestelako meategiak bezala. Planetaren beroketaren ondorioek baldintzatuko duten etorkizun bati begira, adituen ustez munduko eskualde askotan [laborantzaren] etekinak murriztuko direnean, Errusiak harrotasunez erakuts dezake funtsezkoa den baliabide hori daukala. Azken finean, demografiaren gainbehera joan arren eta bere



EPE

Hidrokarburozko altxor ezkutua medio, Errusia bilakatu da bai Europarentzat eta bai Txinarentzat bazkide konplikatu baina nahitaezkoa

ekonomia AEBetakoaren edo Txinakoaren aldean beheraka doan arren, Errusiak sekulako boterea dauka energietan eta laborantzaz.

EUROPA MENPEKO IZATEKO BALDINTZAK EUROPARREK BEREK ERAIKI DITUZTE

Izan ere, Europar Batasuneko herrialdeek, energia-baliabide mugatuak eduki arren, ez dute lortu beren menpekotasuna murrizteko politikak abian jartzetik. Politika horiek badute izena: energia eta materiala aurrezte deitzen dira. Geopolitikaren argudioak alde batera utzirik ere, klima-aldaketa dela-eta nahitaezkoak dira. Hala eta guztiz ere, nahiz eta

IPCC-k (Klima aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldea) edo hainbat adituk luzaz aldarrikatu duten politika horien beharra, Europar Batasuneko estatuen energia-kontsumoa ez da batere aldatu 1990etik: gaur oraindik 900 milioi tona petrolioren baliokidea da.

Eta Errusiak Europari ematen dion behar duen petrolioaren %30 eta gasaren %40 inguru, europarrek eraiki dituzte beren menpekotasunaren oinarriak, eta ondorioz beren ahuldadearenak, Kremli-neko handikiak mahai gainean ukabilkada jotzen duenean. Maila txikiago batean, Europak nekazaritza ekologiko eta herrikoi bat ezartzeko daukan ezintasunak menpeko bilakatzen du kanpoko elikagai eta ongarriekiko.

Europak ez du lortu ere AEBen menpekotasun kultural eta militarretik askatzea. Bereziki, ezin izan du ez NATO-tik irteten, ezta NATO garatu ere, honen baliagarritasuna oso eztabaidagarria izan arren 1991n Sobietar Batasuna desagertu zenetik. Aldiz, kontinentearen bestelako antolaketa bat asmatu beharrean, NATOk bere horretan jarraitu du, paradoxa den arren Frantziak sendotuta, Sarkozoren agintaldian De Gaullek planteatutako independentzia-politika bazterturik.

Oraingo krisiaren sustraietako bat –Putini bere krimenak inondik ere bar-



MINIMALIZ

katzen ez dizkiona– zera da: ez zela esan argi eta garbi Ukraina ez zela NATOren bazkide izango, nahiz eta politikari eta diplomatiko burutsuak, tartean Henry Kissingerrek berak, aspalditik ari ziren esaten Ukrainak ez zuela NATO n sartu behar. Otsailaren 24tik egoera aldatu da, bistakoa denez, baina Bertran Badie nazioarteko harremanetan adituak orotarazi digunez, gaurkoa ulertzeko ezin ditugu ahaztu historia eta umiliazioak.

Azkenik, azpimarratu dezagun Putin jauna, munduan dagokion bidezko lekua lortu nahi duen Errusia eterno baten igarlea baino gehiago dela herri errusiarrari bere ondasunak kendu eta zergatan, paradisu fiskaletan eta Kosta


Urdineko txaletetan pilatu duen oligarka bandaren liderra. Errusiako lehendakariak bere agintea oinarritu zuen Sobietar Batasuna zenaren arpilatzean, aliantza bat tarteko: batetik KGB eta antzeko egitura estatalak eta bestetik Sobietar Batasunaren porrotean azaldu ziren oligarkak. Duda barik, errazago egin ahal izango zioten aurre Putini baldin eta Mendebaldeko herrialdeek martxan jarri izan balute ihes fiskalaren kontrako borroka eraginkor bat.

Kontua da funtsean, modu diferentean izan arren, Europako herrialdeak eta AE-Bak ere daudela beren aberastasunak – baita COVID pandemiarena bezalako krisi garaietan ere– lotsagabeki pilatzen dituz-

ten oligarken uztarripean. Eta horiek blokeatzen dituztela planetaren berotzeari aurre egiteko beharrezkoak diren aldaketak, elikatuz menpekotasun eta gatazka zikloak, gaurkoak bezala etorkizunekoak. Bai mundu mailako desberdintasunak eta bai –hazkunde ekonomikoaren obsesio– nazioen artean baliabideak eskuratzeko dagoen lehia, horiek osatzen dute gerraz betetako etorkizun baten lurzorua. Oraindik goiz da Ukrainan jokatzeko den drama zertan bilakatuko den ikusteko, baina hala eta guztiz ere funtsezkoa da oroitaraztea egoera ekologikoa ari dela nazioarteko politikaren jokoan kartak berriro nahasten.

Epe laburrean, baliteke krisiaren irtenbidea jendearengandik sortzea. Azpimarratzekoa da, dirudienez, Ukrainako jendea aurre egiten ari zaiola Errusiako armadaren zilindroari, azpimarragarria inbasioak ez dirudiela popularra Putinen herrialdean bertan, azpimarragarria mundu osoan bakearen aldeko manifestazioek –ehun mila igandean Berlinen– beren arbuioa adierazi diotela inbasioari. Ziurrenik goizegi da esateko herritarren matxinada honek aldatuko duen ala ez egoera militarra. Baina itxaropena ematen du, ea gerra honen ostean ere hautatzen ditugun gure menpekotasunak murrizteko politikak eta prestatzen garen benetako arerioari aurre egiteko: ez gure lagun urkoari, baizik eta klima-aldaketari eta ingurumenaren suntsiketari. ●

*Hervé Kempf *Reporterre* hedabidearen zuzendaria da. Otsailaren 28an, aldizkariaren editorial gisa argitaratu du hemen euskaratuta eskaintzen dugun *Remarques écologistes sur la guerre en Ukraine*.



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

info@zinkunegioptika.com

www.zinkunegioptika.com



“Militarizazio burugabeak gudara eramango gintuela ohartarazten urteak generamatzan”

Yurii Sheliazhenko

Ukrainako antimilitarista

Yurii Sheliazhenko Ukrainako Mugimendu Bakezaleko idazkari nagusia eta Kontzientzia Eragozpenerako Europako Bulegoko batzordekide da. Kieven dago, eta Errusia Ukrainako hiriburua hartzeko saiakera betean den bitartean egina da elkarriketa hau. Kultura gerrazalea indartsu sumatzen den garaiotan, egoeraz egiten duen irakurketa bakezaleak apenas du lekurik hedabideetan.

 **AMY GOODMAN / JUAN GONZÁLEZ**



Elkarriketa hau Democracy Now!-k argitaratu du eta Creative Commons lizentziari esker euskaratu dugu.

Nola heldu gara hona?

Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko militarizazioa urrunegi joan da. Arrazoiak ugari dira: operazio militar arduragabeak, NATOren hedatzea, Errusiaren inbasioa Ukrainan, Ukrainaren militarizazioa, nazioarteko erakundee-tan Errusia baztertzea, diplomatiko errusiarrak kanporatzea... Diplomaziatik gudara bultzatu dute Putin. Gizatasunaren azken loturak amorrus suntsitu beharrean, inoiz baino garrantzizkoago zaigu Lurreko pertsona guztien arteko komunikazio eta lankidetzarako guneak gordetzea eta indartzea. Norabide horretan norbanako bakoitzak egiten duen ahalegina baliotsua da.

Zer iritzi duzu krisiari eman erantzunaz?

Pena da ikustea Ukrainari Mendebaldek ematen zaion babes batez ere militarra dela, edo Errusiari jarritako zigor ekonomiko mingarriak direla. Gatazka honi buruzko jarraipena soilik gudan zentratzen ari da, alde batera utziz indarkeriarik gabe gudaren aurka egiten ari den erresistentzia. Ukrainar zibil ausartak kaleko seinaleak aldatzen ari dira, edo kaleak eta tankeak blokatzen beren aurrean armarik gabe jarrit. Txin hain ezagun egin zen tankearen gizona bezala, gerra geldiarazteko.

Adibidez, mobilizazio bakezaleak an-tolatzen ari dira Berdiansk hirian eta

Kulykivka herrian. Mugimendu bakezaletik urteak generamatzan ohartarazten militarizazio burugabeak gudara eramango gintuela, eta arrazoi genuen. Azken aldian jende asko prestatu dugu gatazkak modu baketsuan konpontzeko edo erasoan aurreko indarkeriarik gabeko erresistentziarako. Irtenbide baketsu baterako itxaropena ematen du horrek, beti dago ortzi-mugan.

Zein da egoera Ukrainan?

Jende gehiena, munduko leku gehienetan, bakean bizi den bitartean, Ukrainako hiriburua, Kiev hiri ederra eta beste hiri batzuk errusiar bonbardaketen jomuga dira [elkarriketak martxoaren





Ukrainar bat Errusiako konboi baten aurrean.

1eko data darama]. Elkarrizketa hau hasi baino lehen leherketa hots urrunak entzun ditut berriro. Sirena hotsak entzuten ditugu askotan, hainbat egun daramatzate horrela. Ehunka dira errusiarren erasoagatik hildako herritarrak, haurrak barne. Milaka zauritu daude. Ehunka mila pertsonak egin du alde eta atzerrian aterpe bila ari dira. Horri gehitu azken zortzi urte hauetan milioika pertsonak aldatu behar izan dutela beren bizilekua Errusian eta European barrena Ukrainako Gobernuaren eta Errusiaren babesa duten Donbas seko separatisten arteko gerragatik.

Gizonezkoak gudarako deitu zaituztete.

18 eta 60 urte arteko gizonezko guztien mugitzeko askatasuna mugatu dute,

“Hedabideek alde batera utzi dute indarkeriarik gabe gudaren aurka egiten ari garen erresistentzia”

atzerrira joatea debekatu digute eta gerra ahaleaginean parte hartzera deitu. Ez dute salbuespenik egin, ez zerbitzu militarri kontzientzia eragozleekin edo gerratik ihesi doazenekin. War Resisters’ International (Guda Erresistenten Internazionale) erakundeak gogor kritikatu du Ukrainako Gobernuaren neurria eta atzera egiteko exijitu.

Errusian gudaren aurkako manifestazioetan 3.000 lagun baino gehiago atxilotu dituztela salatuta dute.

Miresten ditut errusiar guzti horiek. Putinen gerra-makinaren aurka indarkeriarik gabe mobilizatzen ari dira herritarrak, atxilotze eta zigor arriskupean. Gure lagunek, Errusiako Kontzientzia Eragozleen mugimendukoek, Kontzientzia Eragozleen Europako Bulegoko ki-deak direnek, Errusiaren eraso militarra gaitzetsi dute. Errusiari gerra gelditzeko eta errekluta guztiei zerbitzu militarri uko egiteko dei egiten ari dira.

Horrez gain, Mundu osoan egiten ari dira manifestazioak Ukrainan bakearen alde. Berlinen milioi erdi pertsona bildu dira gerraren aurka. Ekintza solidarioak egiten ari dira Italian eta Frantzia. Gen-

suikyo kontseiluko gure lagunek –Bonba Atomikoaren eta Hidrogenozkoaren aurkako Japoniako Kontseilua– Putinen mehatxu nuklearrei elkarretaratzeekin erantzun diete Hiroshiman eta Nagasakin. Animatzen zaitut WorldBeyondWar.org webgunean bilatzera nazioarteko eta AEBetako gerraren aurkako azken ekimenak. Adibidez, martxoaren 6an Ukrainako gerra geldiarazteko ekintza globala egin dute, CodePink eta beste talde bakezale batzuek antolatuta, “Errusiar tropak kanpora. NATOren he-dapenik ez” lelopean.

Negoiazioak hasi dituzte bi aldeek...

Putinek behar du Ukrainaren estatus neutrala, desnazifikazioa, herrialdearen desmilitarizazioa eta Krimea Errusiarena dela onartzea, nazioarteko zuzenbidearen aurka doan zerbaitekin. Macroni esan zion. Beraz, Putinen eskakizun horiei uko egiten diegu. Ukrainako ordezkaritza soilik su-etenaz eta errusiar tropak Ukrainatik ateratzeari zegoen prest hitz egiteko, zeren, noski, Ukrainari bere lurralde batasuna axola zaio. Bitartean, Ukrainak jarraitu du Donetsk bonbardatzen eta Errusiak Kharkiv eta beste hiri batzuk. Funtsean, bi aldeak beligeranteak dira eta ez daude egoera baretzeko prest. Bake-elkarrizketetan serio eta fede onez en-gaiatu behar lirateke Putin eta Zelenski, politikari eta ordezkari arduratsu gisa, interes publiko komunean oinarrituta.

Zelenski presidentea aipatu duzu. Mendebaldeko hedabide askotan heroi gisa aurkeztua da.

Erabat makurtu da gudaren makineriara. Soluzio militarra bilatzen du eta huts egiten du Putini zuzenean ez dei eginez guda geratzeko eskatuz. Ameskeria faltsuak dira indarkeria sistemikoa eta guda, arazo sozial guztien konponbide miragarri gisa planteatuta.

Industria militarrek botere handia du...

Aliantza militarren helburua demokrazia baino despotismoa sustatzea da. NATOko kideek Ukrainiaren burujabetza babes-teko gobernuari laguntza militarra ematen diotenean, edo Errusiak Donetsk eta Luhanskeko auto-aldarrikatutako erre-publiketara tropak bidaltzean, gogoan izan behar genuke odoljariora sustatzen ari direla. Ekialdeko agintari autoritarioak bezain arriskutsua da demokraziarentzat Mendebaldean gudarekin negozioa egiten duen jendea. NATOk Ukrainaren ingu-



ruko gatazkatik atzera egin behar luke, gerragatik eta Ukrainako Gobernuak kide izateko asmoengatik dago hor. Eta ideala zer litzateke? NATO desagitea edo aliantza militarra izan beharrean, armagabetearen aliantza izatea.

Zelenski bideo bidez zuzendu zaio Europako Parlamentuari. Txalo zaparrada eskaini zioten eta ondoren, Europako Parlamentuak onartu zuen Ukrainak Europar Batasunean sartzeko eskaera. Zer pentsatzen duzu?

Mendebaldeko demokrazien aliantzarekin gaudelako, nire herriaz harro sentitzen naiz. Baina, zoritxarrez, Europar Batasunak eta Ukrainak arazoa dute militarizazioarekin. Eta Orwell-en 1984 eleberriko Bake Ministerio distopikoa dirudi, Europako bakegintzak Ukrainari laguntza militarra ematen baitio, baina ia ez dago egungo krisiari eta desmilitarizazioari indarkeriarik gabe irtenbidea emateko laguntzarik. Ukraina herrialde demokratikoa da eta itzela da Ukrainaren sarrera eskaera onartzea Europar Batasunak, baina uste dut Mendebaldearen kontsolidatze horrek ez lukeela izan behar etsai deitzen dioten baten aurka planteatua, Ekialdearen aurka. Ekialdeak eta Mendebaldeak adiskidetze baketsua bilatu behar lukete eta gobernantza globala, armadarik eta mugarik gabe munduko pertsona guztien batasuna.

Horretan ez du lagundu Ukrainak debekatu izana herritar ugariri bizitza publikoan parte hartzea errusieraz hitz eginez gero. Ez da Putinek dioen beza-

la inbasio baterako eta eraso militar baterako kausa justua, noski, baina ez da zuzena. Eta noski, Mendebaldeak zenbaitetan esan behar lioke Ukrainari giza eskubideak errespetatzea balore garrantzitsua dela, eta adierazpen askatasunak, hizkuntza eskubideak bezala, garrantzia duela, eta gauza garrantzitsua dela Errusiaren aldeko jendeak, errusiar hiztunak direnak, ordezkaritza edukitzea bizitza politikoan. Ukrainan beren diasporaren kultura nola zapaltzen duten ikusteak Kremlina sutu du. Eta krisi hau deseskalatu egin behar da, ez eskalatu gehiago. Ukraina Europako nazio gisa onartu duten egun handi hau ez litzateke izan behar Europa eta Errusiaren arteko oposizio militarreko beste aurrekari bat.

Ukrainak hegaldirik gabeko gune bat eskatu du herrialdeko zenbait gunetan. Hori, jakina, Europar Batasuneko eta AEBetako armadek bete beharko lukete. Zer sentitzen duzu honi buruz?

Eskaladan beste pauso bat da. Mendebalde osoa, alderdi militarrean batuta, Errusiaren aurka. Eta Putinek jada erantzun dio horri mehatxu nuklearrekin, suminduta dagoelako, jakina, beldurtuta dagoelako. Gu ere bai, gaur egun Kieven. Lasaitasuna mantendu behar genuke eta arrazionalki pentsatu. Gatazkaren soluzio baketsu baten alde lan egin behar genuke, Putinen eta Zelenskiren arteko negoziazioak, Bidenen eta Putinen artekoak... Bake elkarrizketak etorkizuneko giltza dira, jendeak gudak hasten baititu etorkizunaz itxaropena galtzean. ●



Iritziak

Txanponaren bi aldeak

Egoera ilunenetan ere beti atzematen omen da argia, txikia eta lausoa bada ere. Horixe erakutsi zidan amona Ferminak; 1916an sortu zen eta 92 urtetan izan zuen zer ikusi eta zer ikasi. Bere bizitzan izandako unerik latzenetan ere, *txarrenari onena* eman izan zion beti. Azken garaiotan, askotan gogoratu izan naiz harekin; izan ere, garai gogor baten gisan bizi izan dugun pandemia, belaunaldi hark pairatutakoarekin aldera ezina iruditzen zait hainbatetan. Denboran atzera egitea ariketa interesgarria iruditzen izan zait beti, errealtatea dimentsionatzeko lagungarria dela uste baitut. Horrekin batera, norberaren burua bestearen lekuan jartzea ere aitzakia ederra izan daiteke hausnarketarako.

Berriki, pasaeran dauden migratzaileen inguruko mahai-inguru batera joateko aukera izan dut. Bertan adierazitakoek gure kaleetan egon ohi diren lagunen egoera beste prisma batetik ikusteko aukera eman zidaten. Horiek bizi duten egoera erabat zaugarria da, besteak beste, eskubide falta nabaria bizi dutelako. *Transiteus* proiektuko ikertzaile batek zioenez, egoera horretan dauden zenbatekoa jakitea zinez zaila da, gurean egiten duten egonaldia laburra izan ohi delako, eta oro har, ez delako gaiaren inguruko jarraipenik egiten. 2015. urtetik egundaino eskuragarri dauden datuek egoeraren larritasuna bistartzen dute: itsasoz Espainiako Estatura iritsitako lagunak 5.312 izatetik (2015),

Etikoki, hurkoaren zaintza eta eskubideen defentsaren alde borrokatzea dagokigula uste dut. Eta besterik ez bada, berekoikeriagatik egin beharko genuke, bestearen onura, gurea ere badelako

58.569 (2018) izatera pasa omen ziren Nazio Batuen Erakundeko Errefuxiatuen Agentziaren arabera. 2020an gutxiago kontabilizatu baziren ere (40.326 lagun), argi dago pandemiagatik ez dela joera gutxitu. Pasaeran dauden horietatik %80 inguru gizonezkoak izan ohi dira, eta gehienbat, Ipar Afrika eta Saharaz azpiko Afrikatik omen datoz.

Andaluziara eta Kanariar Uharteetara iristen direnetatik, asko dira guretik pasatzen direnak. Ezagunak dira gizarte zibiletik salatu izan diren iparralde-hegoalde muga inguruan jendarmeez egindako bidalketak, eta ezagunak dira, tamalez, Bidasoan izandako heriotzak ere. Aurrez aipaturiko datuen arabera, mugimendu masiboez hitz egiten ari garela dirudi; eta, migrazioen arrazoiak askotarikoak izan badaitezke ere, zaila da sinestea izaera

abenturazalea dagoenik mugimendu horien guztien muinean. Bizitza duinaren bilaketa arrazoi sendo bezain gogorra da norberaren herria uzteko.

Mundua elkar-loturez osaturik dagoela esatea bistakoa dela esango nuke. Pandemiarekin argi ikusi dugu, adibidez, planetaren beste puntan jazotakoak zuzeneko eragina izan duela beste herrialdeetan. Hari berdinari jarraituz, logikoa da pentsatzea, txirotuak izan diren herrialdeen egoerak aberastuak izan diren herrialdeen dinamikekin erabat loturik daudela. Nolabait, iparraldeko gehiegizko kontsumoa, ekoizpen-prozesuen deslokalizazioa edota baliabide energetikoengatik borroka, eragin zuzena du tokian-tokiko jendartearen bizi baldintzetan. Txanpon beraren bi aldeak izango lirateke, batak bestea behar du bizirauteko.

Lotura horien konplexutasunak zaildu egin ohi du beraien identifikazioa; eta identifikatuta ere, zalantzak ditut, gizar-te modura, *txarrenari onena* emateko gai ote garen. Urrun daudela iruditzen arren, etikoki, hurkoaren zaintza eta eskubideen defentsaren alde borrokatzea dagokigula uste dut. Eta besterik ez bada, berekoikeriagatik egin beharko genuke, bestearen onura, gurea ere badelako. Ezin ahaztu, amona Ferminaren belaunaldiko hainbatek Ameriketara ikusi zuela irtenbidea. Eta posible da, egungo migratzaile askorentzat, iluntasunaren erdian ikusten den argi lauso bakarra iparralderanzko abialdia izatea. ●



IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLEA

Dependentzia afektiboa



JUNE FERNANDEZ
KAZETARIA

Ezaguna da Edurne Pasaban alpinista tolosarraren historia: 31 urterekin, bere zortzigarren zortzimilakora igo ondoren, depresioak jota saiatu zen bere buruaz beste egiten, eta ospitale psikiatriko batean eman zituen hainbat hilabete.

Alabaina, deigarria da krisi psikiatrikoaren piztailea ez zela izan eliteko kirolari gisa zuen presioa, ezta espedizioetan heriotza gertu sumatzea ere, edota bidean bi behatz galdu izana.

Depresioa ez baitzen mendian ondu, etxean baizik. Gipuzkoara itzultzen zenean (gorputza akituta, bihotza harro) inor ez zegoen bere zain, mutil-lagunek ez zutelako bere bizimodua onartzen. Harremana apurtzen zuten, ala okerrago, azalpenik eman gabe desagertzen ziren.

“Normala da, neska, daramazun bizimoduarekin...”, esaten zioten Edurneri bere ingurukoek. Baina, orduan, zergatik taldeko gizonek emaztea zein umeak zituzten? Zergatik ez zuten familiaren eta alpinismoaren artean aukeratu behar? Hara, jakina delako emakumea dela gerlariaren atsedena, eta gerlari hori gizonezkoa dela.

Pasabani egin diodan elkarriketan azaldu dit terapian ulertu zuela bere sufrimenduaren iturburua ez zela mendia, dependentzia afektiboa baizik. Hori landu zuenean atera zen mundura, itzuli zen alpinismora. Lortu zuen hamalau zortzimilakoak igo zituen munduko lehenengo emakumea izatea. Mendia (hura bai maitale leiala) bere zain aurkitu zuen.

Historia horrek erakusten du Everesteko tontorrean egotea baino itogarriagoa dela patriarkatuak emakumeoi ezarritako agente soziala; alegia, emazte zein ama izateko jaioak garela,

eta eginbehar hori gure arrakasta profesionalarekin kontrajarrita dagoela. Oxigeno falta baino asfixiagarriagoa da patu bikoitz horrek dakarren oinazea. Izan ere, ama izan nahi duten 30 urte baino gehiagoko emakume heterosexualek buruan bi ezinegon gainjartzen dira: “Norbaitek maitatuko al nau?”, “lortuko al dut nire haurren aita garaiz ezagutzea?”.

Ondoez horren genero eta klase analisisia egin du Noemí López Trujillok *El vientre vacío* liburuan. Adierazi du (gure belaunaldian sakondu den prekarietateaz gain) harreman heterosexuak baldintzatzen dituzten desorekek ere traba egiten dutela amatasun desioa gauzatzeko bidean. Izan ere, gizonek ez dute emakumeek adina presio biologiko edo sozialik pairatzen. Horrez gain, ez diote aurre egin behar lana eta familiaren artean aukeratzeko dilemari. Autonomiarako aukera bat da borondatezko ama bakarra izatea, baina agerikoa da familia eredu horrek babes sozial handia zein baliabide ekonomikoak eskatzen dituela.

Euskal Herriko Neska Gazteak kolektiboak otsailaren 14an #SanValentHIL traolarekin zabaldu duen komunikatuak maitasun erromantikoaren ereduaren aurreko alternatiba proposatu du; amatasunaren korapiloa aipatzen ez duen arren, hori familia nuklearretik askatzeko baliogarria izan daitekeena: kalitatezko harreman sare komunitario bat ehuntzea, bikoteaz harago, lagunekin, auzokoeekin edota militantzia kideekin batera.

Ekonomia feministak gogorarazi digu ez garela izaki autonomoak, interdependenteak baino. Hargatik, agian ez genuke psikologoarengana emakumeok soilik joan behar; baita gure pasioei uko egitera behartu nahi gaituzten gizon matxistek ere.

Beharbada gure dependentzia afektiboa baino arazo larriagoa da sistema patriarkal kapitalista bera; maitasuna lehenestea gain, gure karreraren eta familia bat sortzearen artean aukeratu behar dugula sinestarazten diguna.

Akaso, gure osasun mentala zaintzeko, terapia bezain beste behar dugu feminismoa. ●



ANTON OLARIAGA

Sisiforenak eta bi euskararen aldatzetan



**ZIGOR ETXEBURUA
URBIZU**
ZINEGOTZIA

Badirudi beti hutsetik hasi beharra daukagula, ez dugula deus egin, ezta deus ikasi ere euskaraz bizitzera iristeko urteetan egindako asmatze eta akatsetatik. Ez dago jarraipenik, ez dago hobekuntza adierazlerik; segi ohiz egiten den horretan, kontua zerbait egitea baita, onerako aldaketa aski ez eragin arren. Berdin dio programa berarekin 20 urtez aritu izan arren, ostalaritzan eta merkataritzan euskararen erabilera inoiz baino apalagoa izatea hirian, are, ingelesak tokia hartu izana euskarari; inor ez da ausartuko ekimena errotik aldatzera, edota araudia betearazteko bideari ekitera. Eutsi horri bere horretan, asmatuko baitugu saltzen euskararen erabilera- ren alde gure gobernuak egiten dituenen erakusletzat; gainera, gaur egun inor gutxi etorriko zaigu kontu eske.

Duela 25-30 urte ere, ohikoa izaten zen auzoetako kultur programazioan euskarazko sorkuntzak gutxitan izatea tokiren bat; euskaltzaleok gure kontura programatu behar izaten genituen euskarazko emanaldiak, programazio ofizialetik kanpo. Urteak aurrera joan ahal, orde, jabetu ginen ez zela bidezkoa; zergetan berdin tratatzen bagintuzten, izan erdaldun edo euskaldun, eskainitako udal zerbitzuetan ere horrela behar

zuen. Eta lortu genuen euskarazko kulturak ere tokia izatea programazio ofizialetan, baita urtez urte zabalagoa izatea ere. Baina euskarazko programazioak ez du gailurrik egin, eta badoa aldapan behera berriz ere. Esaterako, antzerki eta dantza ikuskizunen urteroko programa entzutetsuan, 39 sorkuntzetatik 19 gaztelaniaz eskainiko dira, eta hiru besterik ez euskaraz. Gure auzoko kultur etxean ere, euskarazko programazioak sarritan izaten du sustatzaile bertako talde euskaltzaleren bat.

Eta erantzungo didazue egokia dela bazterkeriaren aurrean antolatzea eta guk geuk egitea. Jakina, bat nator. Era berean, esango dizuet duintasun eta eskubide kontua ere badela bi hizkuntz komunitateetatik baztertua eta gutxiagotua dagoen bakarra egoera horretatik ateratzea, eta bide horretan, guztionak omen diren erakundeek betekizun dutela euskaldunoi, gutxienez, erdaldunen pareko zerbitzuak eskaintzea. Horregatik, ez da onargarria arduradun politiko batek erabakitzea, 2022. urtean, kultur programa batean eskaintzaren %7,7 besterik ez izatea euskaraz.

Donostiako kontuak dira, baina aldatz horiek Euskal Herriko txoko gehienetan igo behar izaten ditu Sisifok. ●

Mezu politikoen sinpletzea



**LAURA MINTEGI
LAKARRA**
IDAZLEA

Alderdi politikoen mezuak sinpletzera jotzen dute, herritarrek adimenez edo adinez txikiak balira bezala. Informazioa eman ordez nork bere iritzia garatu dezan, pin batean sartzen den leloa ematen diete, eta fedea eskatzen diete edo, txarragoa dena, emotibitatez erantzun dezatela, pentsatzeko, haztatzeko edo argumentatzeko betarik eman gabe.

Herritarren ahalmen intelektiboan sinistuko balute, leloak eman ordez datuak emango lituzkete, norberak gartzeko bere iritzi politikoa.

Nahikoa litzateke esatea urte bakarrean bikotekideek (aitek, semeek) 42

emakume erail dituztela ondorioztatze-ko gizarte matxistan bizi garela, baka- rrik matxismoak azal bailezake gizonez-koak erailteaz bikotekidea, menpeko ez izateagatik.

Gizarte injustuan eta neoliberallean bizi garela esan ordez, eman ditzagun Gini indizearen datuak, ikusteko Espai- niak (34,7 indizearekin) egoera despa- rekoagoa duela Bulgariak, Errumaniak edo Letoniak baino, eta soldata altuenen eta baxuenen arteko aldeari dagokiola.

Badirudi alderdiek beldur dietela pentsamendu propioa duten herritar kritikoei. Akolitoak nahiago dituzte, eta pilula publizitarioak. Triste. ●

Karrantza basatia



AHOZTAR ZELAIETA
KAZETARIA

Karrantzako Minda enpresaren porrotagatik Bizkaiko Probintzia Auzitegiak 2018. urtean ezarritako zigorrak berretsi ditu Espainiako Auzitegi Gorenak pasa den urtarrilean. Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak 13,5 milioi euroko diru-laguntzak eman zizkioten proiektuari; horietatik hamar pasatxo, obrak hasi aurretik.

Karrantzako Mindaren fardela bere gain hartu behar izan zuen herriko alkate ohi batek, 2018. urtean zendua, etsipenak jota bertoko batzuek diotenez. Zigortuen artean gobernuak goi-kargu izandako bat ere bada, Martin Ascacibar, orain Altuna y Uria enpresaren interesak defendatzen dituen Zubietako errausategian. EAJko alkatearen kontrako 2012. urteko zentsura moziara jauntxo batzuk hurbildu ziren, Andoni Ortuzar eta Juan Mari Aburto. Agerraldi hura basoa ez ikusteko aurrean landatutako zuhaitza baino ez zen.

Haraneko abeltegietatik ateratzen den gehiegizko mindari irtenbide bat emateko proposatu zuten abeltzainek planta egitea 2000. urtean. Karrantzako

EAJko alkatearen
kontrako 2012. urteko
zentsura moziara
jauntxo batzuk hurbildu
ziren, Andoni Ortuzar
eta Juan Mari Aburto.
Agerraldi hura basoa
ez ikusteko aurrean
landatutako zuhaitza
baino ez zen

Minda izeneko enpresa sortu zen eta Ade Biotec SM kontratatu obrak zuzentzeko. Ade Biotec enpresako administrazio kontseiluan EAJren konfiantzazko bi abokatu esertzen ziren: Xabier Aguriaino (Bidegi aferari lotua) eta Guillermo Ibarrondo (Alonsotegiko *Liburu Beltzan* aipatua).

Obrak egiteko Asier Atutxa burukide ohiak sortutako bi enpresa kontratatu zi-

tuzten, Ingeplan eta Arkigest, azken hori Bakioko alkate ohi baten ustelkeriaren kontrako salaketan aipatua. Mindaren plantaren eraikuntzan ere aritutakoa da Viuda de Sainz taldea, hain zuzen talde horretako enpresa baten zuzendari izendatu zuten ordurarte EAJren diruzain izandakoa, Xabier Sagredo. Obretan murgildu zen baita Urazca taldea, EAJko alkate ohi batek sortua eta gainera talde horretako enpresa baten kudeatzaile ohi gaur Bizkai Buru Batzarreko burukide da, Humberto Perea. Urazcaren izena PPko diruzain ohiaren paperetan (Bárcenas-en paperak) eta EAJko burukide ohien ustelkeria kasu batean aurkituko dugu, De Miguel auzian.

Karrantzako Mindari buruz Kontu Auzitegiak egindako txostenean Uría Menéndez taldearen jokaera agerian jarri zen, abokatu talde horretan lanean ari da Javier Balza, Segurtasun sailburu ohi. Txostenak Eptisa ere aipatzen zuen, enpresa horren lehendakari izendatu zuten Bizkaiko Ahaldu Nagusi izandakoa, Josu Bergara. Eta oraindik, hamaika ikusteko jaioak gara Karrantza-ko Far Westean. ●



Artikulu hauek erosita ekarpen ekonomikoa egingo diozu Bilboko Mbolo Moye Doole elkarteari. Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!

azoka.argia.eus

943 37 15 45

Bidalketa gastuak: 4 € 40 €-tik gorako erosketetan, bidalketa doan.



M8. Nola bizi dugu emakume ijitook zaintza?



TAMARA CLAVERÍA
AMUGE ELKARTEKO ARDURADUNA

Emakumeen Nazioarteko Egunean ere, ijito feministok ikusgai izan nahi dugu eta mugimendu feministan arrazakeriaren kontrako borroka txertatzen lagundu nahi dugu. Horretarako, ezinbestekoa dugu emakume arrazializatuen eta, zehazki, ijitoen errealitateak ezagutzera ematea. Osterantzean, mugimenduak intersektionalitatearen aldeko jarrera izan arren, praktikan emakume zurien ikuspegia gailenduko da, eta gure lehentasun politikoekin bat ez datozen gaitan zertzelada pare bat ematera mugatuko gara.

Aurten, Bilbo Feminista Saretzenek zaintza-sistema publiko baten defentsan oinarritu du bere komunikatua. Jakina, ijito feministok aldarri horren garrantzia ulertzen eta berresten dugu; alegia, pertsona guztiek zainduak izateko eskubidea dutela eta zaintzan diharduten langileen eskubideak bermatu behar direla (botere-harreman sexistek, klasistek eta arrazistek zeharkatzen duten sektorea dela kontuan hartuz). Halaber, ezarritako genero-rolak eta emakumeek zaintzeko duten betebeharrak historikoa zalantzan jartzen ditugu.

Edonola ere, garrantzitsua iruditua zaigu azaltzea nola ulertzen eta bizi dugun guk zaintza. Gure familiak oraindik ere zabalak direnez, haurrak, adinekoak eta gaixoak zaintzeko antolatzen gara, baita zainketa intentsiboak egin behar dituzten senideak laguntzeko ere. Horregatik, ez ditugu haurtzaindegiak edo ta goitzak erabiltzen, ez bada premia

Antikapitalistak
garen heinean, uste
dugu feminismoak
irudikatzen duen
zaintza-sistema
publikoaren ardatzak
ez lukeela izan
behar zainketen
kanpora ateratzea,
baizik eta alternatiba
komunitarioen
sendotzea

bereziak dituzten senideak artatzeko (alzheimerra, kasu).

Adinekoei dagokionez, haiekiko errespetua lehentasunezko balioetako bat da ijitoen kulturari; urteak bete ahal, gure Osaba eta Izekoen (hala izendatzen ditugu) aitoren soziala handitu egiten da. Horregatik, harrigarria egiten zaigu pertsona nagusi asko bakardadean edo babesgabe daudela ikustea. Gure familietan, emakumeok amak eta amamak zaintzen ditugu eta gizonek gizonezko senideak artatzen dituzte; harrotasunez

onartzen duten ardura da.

Hau guztia kontuan hartuta, kalitatezko eta doako zerbitzu publikoen aldeko aldarriarekin bat egiten badugu ere, bestelako eskariak ditugu. Adineko emakumeei dagokienez, estatuak alarguntza-pentsioa ukatzen die, ijitoen ezkontzari balio zibilik aitortzen ez diolako. Gainera, 65 urtetik gorako ia emakume ijito guztiek kotizazio gabeko pensioa kobratzen dute, ez dutelako lan-merkatuan sartzeko aukerarik izan edota ekonomia informalean aritu direlako. Haurren arretaren arloan, jaiotze-baimen unibertsalak eskatzen ditugu (egun, kotizatzen ez duten gurasoek ez dituzte kobratzen) eta gutxienez urtebetekoak. Gizonen erantzunkidetasuna lantzen badugu ere, amatasuna modu intentsiboan bizitzea erabakitzen duten emakumei babes ekonomikoa ematearen aldekoak gara.

Finean, kalitatezko eta doako zerbitzu zein figura profesionalen beharra ikusten dugu, kultura aniztasuna errespetatu behar dutenak, baita Euskal Herrian bizi diren familien askotariko beharrak kontuan hartu ere. Baina, antikapitalistak garen heinean, uste dugu feminismoak irudikatzen duen zaintza-sistema publikoaren ardatzak ez lukeela izan behar zainketen kanpora ateratzea, baizik eta alternatiba komunitarioen sendotzea. Agian, bigarren hori gauzatzeko eta "bizitza erdigunean" lelo ekofeminista gorpuzteko, badago zer ikasi ijito-herriaren balioetatik eta mundu-ikuskeratik. ●

Aldo Rubert

HITZAK ETA EKINTZAK



KLASE POPULARRAK EZ DAUDE DESMOBILIZAZIORA KONDENATUTA



Frantziako Jaka Horien mugimenduari buruzko tesia egiten ari da Aldo Rubert soziologoa: klase popularren politizazio heterogeneoa ulertzea interesatzen zaio, herritarrek politikarekiko daukaten harremana ezin baita murriztu hauteskunde-garaian gertatzen den –edo gertatzen ez den– horretara.



DANELE SARRIUGARTE MOCHALES



FRANÇOIS LEGUEN

Jaka Horien lehen manifestaldiaren aurretik –2018ko azaroak 17–, zein zen testuingurua?

Jaka Horien lehen ekitaldia baino sei hilabete lehenago, jatorri martinikarreko neska batek eskaera bat abiatu zuen internet bidez, kontra egin nahian erregaiaren prezioaren igoerari –ekotasaren ondoriozko igoera–. 2018ko urrirako, milioika sinadura bildu zituen eskaerak. Sekulako arrakasta izan zuen, eta une horretan bertan hasi ziren deialdiak antolatzen Facebook bitartez, azaroaren 17ko mobilizaziora dei eginez.

Zer oroitzapen duzu egun hartaz?

Ordu batzuk bakarrik egon nintzen mobilizazioan, garai hartan beste etnografia bat egiten ari nintzelako Parisko *riders* batzuekin. Lehen ekitaldia lasai samarra izan zen, gerora ikusiko genuenarekin alderatuta. Parisen, esaterako, hiria inguratzen duen errepidea moztu zuten.

Une horretatik aurrera, larunbatero antolatzen dira mobilizazioak. Zeintzuk dira mugimenduaren aldarrikapenak?

Lehenik eta behin, erregaiaren gaineko

tasa desagertzea, bereziki kaltegarria landa-eremuko eta periferia urbanoko klase popularrentzat, autoaren premia handia baitute. Baina, aldi berean, orobat aldarrikatzen da fortuna handien gaineko elkartasun-zerga berreskuratzea, zerbitzu publikoak zabaltzea batez ere landa-eremuetan eta hirien periferietan, eta demokrazia parte-hartzailea eta zuzena sustatzea.

Azken finean, agerian jartzen da Frantziako errepresentazio-krisia eta, era berean, ikusgai geratzen da debate publikoan oso gutxitan aipatu izan den



Aldo Rubert

BARTZELONA, 1994



Gizarte Antropologia ikasi zuen Bartzelonako Unibertsitatean, eta Gizarte Zientzietako masterra, ondoren, ENS/EHESS eskolan (Paris). Lanaren soziologia, klase popularrak eta mugimendu sozialak aztertzen ditu. Ikerketa etnografiko bat egin zuen, *rider*-ek lanarekiko eta politikarekiko duten harremana aztertuz; gaur egun, berriz, Jaka Horien mugimenduari eta horren eragin biografikoari buruzko doktoretza-tesia egiten ari da.

Frantzia popularra, sufritzen duen Frantzia. Agerian geratzen da pobrezia, agerian geratzen da badagoela jendea ezin dena duintasunez bizi bere soldatarekin, eta bereak eta bi egin behar dituen hilaren amaierara iristeko.

Zer erreakzio sortu ziren horren ostean?

Frantziako *prime timea* bete zuen gaiak. Hasieran, sentsazionalismo handiarekin landu zuten kontua, mugimendu kaltegabea zela uste baitzen: hilaren amaierara iristen ez diren pobreak. Baina mugimenduaren indarra azaleratu zenean, klase-mespretxu handiarekin tratatu zituzten. Jarrera hori lehenagotik zetorren, Macronek berak sekulako klase-mespretxua gauzatu baitzuen ez soilik bere politika sozialen bidez ezpada bere adierazpen oso mingarriekin. Elkarrizketatu ditudan pertsonen memorian, umiliatu dituen norbait izan da Macron.

Eta ezkerrek nola erreakzionatu zuen?

Alderdien barruan izan ziren pertsona disonanteak, baina ezkerren puska handi batek mesfidantza handia erakutsi zuen mugimenduaren aurrean: Marine Le Penekin edo patronalarekin lotu zuten bizkorregi, langile independente asko zeudelako. Egia da eskakizunak minimalista samarrak zirela, baina kontua da Jaka Horien mugimendua ez dela jaio antolakunde iraultzaileetatik. Hala ere, antolakunde iraultzaileek nahiago lukete halako profilak izatea beren baitan.

Jakin badakigun moduan, borrokak, alderdiak eta sindikatuak sektore publikoko klase ertainez josita daude, errepresentatzen omen duten profiletik oso urrun. Hortaz, harrigarria iruditzen zait ezkerrek halako mesfidantza agertu izana, zeren, azken batean, zer nahi dugu, ezkerrearen presente egon dadila soilik irakasleen, ikasleen eta sektore publikoko langileen manifestaldietan, alegia, lanbide gutxi-asko babestuen eta kapital kultural handikoen aldarrikapenetan? Kasu horretan, gutxiengo izatera kondenatuta dago ezkerre.

Ohiko manifestazioez gainera, errepideak blokatzea eta biribilguneak okupatzea izan da mugimenduaren ezaugarrietako

bat. Zure tesian, bi biribilguneren okupazioa aztertu duzu zehazki.

Lana eginda nengoen Parisko eskualdean bizi den jendearekin, baina biribilguneak ezagutzea interesatzen zitzaidan, ez-leku horiek oso adierazgarriak baitira ekonomia neoliberalaren eraldaketari dagokionez; oso ondo erakusten dute nola aldatu diren inguru popularrak. Hasieran errezeloz hartu ninduten, baina harremana egin ostean beren kuartel nagusietara gonbidatu ninduten bi taldek; mugimenduaren funtsezko alderdi bat ikusi nuen horrela.

Nolakoa zen egunerokoa biribilguneetan?

Biribilgunea ez da militatzeko gune bat bakarrik: biribilgunean jendea ezagutzen duzu, barre egiten duzu, maitemindu egiten zara; bizitza egiten duzu. Landa-eremuetan gauza nabarmena da, jendetasunerako ardatz handiak desagertzen joan baitira: eliza, tabernak, elkarteak etab. Biribilguneei esker, jendeak elkar ezagutu zuen, beren bizi-baldintzez hitz egin zuen, eta aldarrikapen kolektiboak antolatu zituzten aurretik bakardadean edo lotsaz bizi izandako prekarietate- edo bidegabekeria-egoeren harira.

Ikusi duzuna eta kontatu dizutena kontuan hartuta, arreta eman dizu zerbaitek bereziki?

Bi talde-mota aurkitu ditut batez ere. Batetik, klase popularretako lehen-manifestarien ehuneko handi eta harrigarri bat dago, hau da, beren bizialdian inoiz manifestatu gabeko jendea, Jaka Horien mugimenduarekin kalera ateratzea erabakitzen duena. Hori oso potentia da.

Gero, mobilizatu diren klase ertainen barruan, jende askok ekintza kolektiboa ezagutzen zuen jadanik, batez ere ezkerreko manifestaldiak, baina sekulako desengainua sentitzen zuen Frantziako borroka sozialen bilakabidearekiko, eta Jaka Horiei esker beraktibatu dira.

Zer ondorio ateratzen duzu?

Garrantzitsuena hau da: Jaka Horien mugimenduak zalantzan jarri du klase popularraren desmobilizazioa, zalantzan jarri du klase popularrak kondenatuta daudenik abstentziora, politikarekiko ezaxolara edo eskuin muturrari botoa ematera, eta zalantzan jarri du klase popularraren faxistatzea.



Mugimenduko partehartzea aztertuz gero arrazaren eta generoaren arabera, zer ikus dezakegu?

Landa-eremuetan, arraza-gutxiengoetako kategorien errepresentazioa proportzional samarra da toki horietan bizi direnekiko. Aldiz, mobilizazioa erlatiboan izan da –nahiz eta batzuek mugimendua babestu duten, hainbat ikerketak frogatzen dutenez– Parisko periferiako udalerrietan, zeinetan herritar arrazializatu asko bizi baita, eta egia da jende hori ez dela hainbeste mobilizatu. Ez du esan nahi ez daudenik, baina ez da ikusi aldiri horietako hainbeste jende.

Zer hipotesi daude datu horiek azaltzeko?

Ikertzaile batzuek dioteenez, klase horiek mobilizatzeko are zailtasun handiagoak dituzte klase popular zuriek baino. Zenbait ikerketak erakusten dutenaren arabera, *banlieue*-tan, Poliziak oso bortizki hesitzen du ekintza militantea, eta horrek disuasio-efektu handia dakar berekin. Per-

tsona arrazializatu gisa, pertsona zuri batek baino askoz beldur handiagoa daukazu Poliziak manifestaldi batean gera zaitzan.

Bestalde, biztanleria hauek askoz konfiantza txikiagoa dute ekintza kolektiboaren probabilitateetan, batez ere 2005eko mobilizazioen ostean, garai hartan sentitu baitzuten inork ez zituela babestu.

Eta emakumeei dagokienez, zenbateko presentzia dute Jaka Horien mugimenduan?

Jaka Horien mugimenduaren %50 emakumeak dira, gauza interesgarria eta harrigarria, alderdiek, sindikatuek eta enparauek gidatutako mugimendu sozial gehienak oso maskulinoak izan baitira.

Ehuneko handia da, bai. Zure ustez zer islatzen du?

Presentzia nabarmen hori azaltzeko darabildan hipotesietako bat da ez soilik emakumeek osatzen dutela erreproduzio sozialeko zerbitzuen lanik prekarioenaren eta proletarioenaren zati handi bat, baizik eta emakumeak direla, halaber, eroste-ahalmenaren kontua gehien ikusten dutenak, eta alderdi horixe izan da Jaka Horien mugimendua gehien egituratu duen aldarrikapena. Emakumeei elkarriketak egitean, beren zailtasun finantzarioei buruz galdetu diet, eta zehatz-mehatz dakite zertan gastatzen duten dirua, baita azken zentimoa ere.

Emakumeak arduratzen dira etxeko ekonomiaz.

Hori da. Hainbat ikerketak erakusten dutenez, eta oso gauza esanguratsua da gure gizarte generizatuei dagokienez, eskala sozialeko sektorerik popularrenetan, emakumeek kudeatzen dute familia-ko aurrekontua, haiek betetzen dituzte agiri administratiboak eta oro har haiek arduratzen dira etxeko finantzez.

Aldiz, hierarkia sozialean gora egin ahala, diru gehiago dagoenean, gizonak arduratzen dira horretaz, eta zer esanik ez optimizazio fiskalari lotutako kontuez ari garenean.

Oker ez banago, elkarriketatzen dituzun pertsonen ibilbide biografikoa ere interesatzen zaizu. Emakume militanteen

“**Jaka Horien mugimenduaren %50 emakumeak dira, gauza interesgarria eta harrigarria, alderdiek, sindikatuek eta enparauek gidatutako mugimendu sozial gehienak oso maskulinoak izan baitira**”

kasuan zerbaitek harritu zaitu bereziki?

Emakume hauen ezaugarri sozial batzuk oso deigarriak iruditzen zaizkit, halako birilitate femenino popular bat erakusten baitute, eta hori landu nahian nabil orain. Hau da, emakume mordo bat eza-gutu dut ez dena identifikatuta sentitzen feminitate hegemonikoarekin, mendekotasunarekin lotzen dutelako. Diskurtso militanterik izan gabe, azaltzen didate “marimutilak” izan direla beti; haurtzar- roan ez zutela soinekorik jarri nahi, horrela ezin baitzuten korrikarik egin; nerabe zirenean ez zutela beren neben neskamea izan nahi, ezta aitari men egin ere, eta etxetik alde egin zutela horregatik... Horrek guztiak argi nabarmentzen du emakume kritikoen profilak existitzen direla testuinguru popularretan, feminista etiketa erabiltzen ez badute ere.

Halaber, diskurtsoaren dimentsiora ez mugatzea zein garrantzitsua den ikusten dugu. Etnografiari esker, praktika-erregistro zabal honetara irits gaitezke, zeinak erakusten baitu nolako aldea egon daitekeen hitzen eta ekintzen artean eta genero-arauen eta emakumeen espektatiben artean.

Zein da Jaka Horien ondarea?

Agerikoa da mugimendua jaitsi egin dela parte-hartzaileen kopuruaren aldetik, nahiz eta presente segitzen duten gatazka sozial guztietan, eta garbi dago politika baldintzatzen dutela oraindik ere. Alderdien programetan nabaritzen da hori. Eta Macroni dagokionez, zer esanik ez: harentzat, Damoklesen ezpataren parekoa izan dira Jaka Horiak. Orain, askoz tentu handiagoarekin garatzen ditu politika batzuk, eta, batez ere, ez da ausartzen edozer gauza esatera.

Horretaz aparte, ikerketari esker ikusi dut borrokak iraun egin duela, nahiz eta luzapen hori oharkabea pasa den.



Azken horren adibiderik?

Kolektibo batzuk herritar-zerrendetan antolatu dira eta udal zein eskualde hauteskundeetara aurkeztu dira. Ez dituzte sekulako emaitzak izan, baina argi geratu da Jaka Hori guztiak ez daudela errepresentazio-sistemaren kontra, eta politikoki antolatu nahi izan dutela moduren batean; are, kasu batzuetan, elkarte iraunkorrak sortu dituzte.

Eta gero, batez ere, elkartasun-brigadak eratu dituzte: autoantolakuntzaren bitartez, fruta- edo berdura-soberakinak banatzen dizkiete talderik zaugarrienei; horietako asko Jaka Horiak dira baina badaude bestelako kolektiboak ere. Egitasmo guztiz interesgarria da, saiatzen baitira logika bertikalik ez sortzen, eta, aldiz, elkarrekikotasun-logikak eraikitzen.

Beste zerbait aipatu nahi zenuke?

Badago gauza interesgarri bat orain arte aipatu ez duguna: auzi ekologikoa. Diskurtsoetatik harago, Jaka Horiak eta klase popularrek maiz erakutsi dute ekologismo-mota berezi bat: ez da goi-klaseen kontsumo bertutetsuaren eko-moral hiritarra, alegia bio erostea eta

bizikletan ibiltzea, ezpada Joan Martínez Alier antropologo eta ekonomialari katalanak pobreen ekologismoa deitzen dion hori.

Klase popularren ekologismoa ez da koordinatu ofizialen arabera adieraziko, baina isurpenak murriztuko ditu egiaz, kontsumo txikiagoa delako eta autokontsumo- zein truke-praktikak erabiltzen direlako. Nahikoa da datuei erreparatzea: argi dago goi-klaseen bizimoduak askoz inaktu handiagoa duela ingurumenean, nahiz eta askoz ebidenteagoa eta errazagoa den

langile-jendea seinalatzea, autoan asko ibiltzen direlako edo ez dutelako birziklatzen.

“
**Macronentzat,
Damoklesen ezpataren
parekoa izan dira Jaka
Horiak. Orain, askoz tentu
handiagoarekin garatzen
ditu politika batzuk”**

**Beste behin ere, aldea
dago egiten denetik
esaten denera.**

Auzi ekologikoan –eta gauza berbera gertatzen da auzi feministarekin, klase-auziarekin nahiz ezker-eskuin ardatzaren kontuarekin–, argi geratu da badirela hainbat praktika, aurrera-koitzat, feministatzat edo ekologistatzat har daitezkeenak, baina ez dutenak funtzionatzen militanteek nahi genukeen koordinatuen arabera edo ohituta gauden moduan. Hau da, balio ekologistak gauzatzeko modua ez da derrigorrez izango sagar ekologikoak erostea. ●

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com

“Pobreziak eragin zuzena du jendearen osasun mentalean”

Sergi Raventós

Soziologian doktorea da Sergi Raventós Panyella (Bartzelona, 1958), eta oinarritzko errenta unibertsalak (OEU) osasun mentalean dituen eragin positiboak ikertu zituen doktoretzan. Hamarkadak daramatza Katalunian OEU bultzatzeko lanean, beste hainbat pertsonekin batera, eta 2021eko urritik hona Katalunian OEU ezartzeko Plan Pilotuaren Bulegoko zuzendaria da. Plana aurrera doa pixkanaka, eta Euskal Herrira etorri dela aprobetxatuz, pobreziak jendearengan dituen eraginez eta OEUk izan dezakeen paperaz hitz egin dugu berarekin.

OEUren beharra azken urteetako proletarizazio prozesuaren sintoma bat izan daiteke?

Oinarritzko errentaren inguruko inkestak egiten direnean, gero eta garbiago geratzen ari da horren aldeko sektoreak zeintzuk diren: gazteak, langile prekarioak, ikasleak eta emakumeak dira OEUrekiko begikotasun handiena dutenak. Bestalde, lan kualifikatu, egonkor eta ondo ordainduetan aritzen diren pertsonak dira orokorrean oinarritzko errentaren aurkako iritzia dutenak.

Hala ere, oinarritzko errenta hobeto ikusten duten sektore edo kolektibo horiek gero eta zabalagoak dira. Katalunian, Euskal Herrian eta Europako beste txoko batzuetan egin diren inkestek erakutsi digute biztanleriaren %60-70a dagoela OEUren alde, eta horien gehien-goia aipatu ditugunak dira: gazteak, emakumeak eta langile prekarioak.

Ba al dago OEUren aldeko jarrera bultzatu duen beste faktorerik?

Automatizazio prozesuak kezka asko sortu du hainbat esparrutan. Jendea kontzien-

te da lan batzuk desagertzen ari direla, eta pandemian jende askok lana galtzeko beldurra izan du. Robotek ez dute oporririk behar eta ez dira gaixotzen, azken finean.

“

Gazteak, langile prekarioak, ikasleak eta emakumeak dira OEUrekiko begikotasun handiena dutenak”

Egun bizi dugun ziurgabetasun ekonomikoak eta etorkizunarekiko ditugun kezkek oinarritzko errentaren aldeko jarrera bultzatzen ari dira.

Demagun Katalunia osoan OEU ezartzea lortzen dela; kapitalak horren aurka egin lezakeela uste al

duzu? Inflazioaren bitartez, adibidez. Oligarkiek ez dute lagunduko, hori garbi izan. Guk badakigu OEU bermatzeko dirua atera daitekeela eta zenbakiek ahalbidetzen dutela, eta uste dugu horrek handitzen duela langile klaseak negoziatzeko duen gaitasuna, egin nahi ez duen lan bati ezetz esateko ahalmena, esaterako. Eta hori ez da kapitalak gogoko duen zerbait.

Hala ere, kapitalaren sektore handi batek ere badaki jendeak ez badu dirurik ezingo dituela haien produktuak erosi, eta kapitalista asko OEUren alde agertu dira, Silicon Valleyen (Kalifornia, AEB), adibidez. Are gehiago, Katalunian Terrassa eskualdean, CECOT enpresen konfederazioa oinarritzko errentaren alde agertu da.

Garbi dago eredu horiek gutxiengoa direla, baina konturatzen ari dira badela garaia ekonomia kapitalistetan jendeari oinarritzko beharrianak bermatzeko baliabideak emateko.

Egin ohi zaizuen kritika bat da “lan txarrak” ez dituela inork egingo.



Gaur egun gertatzen ari den fenomeno da, eta AEBetan *dimisio handia* deitu diote aditu batzuek. Jendea lan zehatz batzuk uzten ari da lanpostu hobearen bila, eta oinarritzko errenta batekin fenomeno hori hazi egingo da, dudarik gabe. Horren aurrean, enpresariak egin behar dutena soldatak igotzea da. Ostalaritzako enpresariak kexu dira azkenaldian AEBetan, langilerik aurkitzen ez dutelako, eta Joe Bidenek garbi esan zien: “Ba ordaindu gehiago”. Joe Bidenek hori esan behar izatea oso adierazgarria da.

Nola eragiten du pobrezia gizakien osasunean? Fisikoan, adibidez?

Bizi-itxaropena izugarri aldatzen da dirudunen auzoetatik auzo langileetara. Bartzelonan, esaterako, zazpi eta bederatzire arteko ezberdintasunak daude metro geltoki batetik bestera. Kalean bizi den jendearen bizi-itxaropena, adibidez, 50-60 urte ingurukoa da.

Eta osasun mentalean?

Azken urteetan konturatu naiz oinarritzko errentak, eta orokorrean babes sozialak, harreman handia duela osasun mentalekin. Izan ere, diru sarrera bermatua izatea edo gutxieneko segurtasun ekonomikoa izatea beharrezkoa da jendeak bere bizitza nahi duen moduan garatzeko.

Bizitza prekarioek, epe luzean, zuzen eragiten dute osasun mentalean. Lan egoera zehatz batzuek ere eragina dute: enplegu-aniztasuna, lan alienatzaileak, lan estresagarriak, gaitzak eta lan errepikakorrak, esaterako. Horrez gain, ikerketa askok dio pobrezian bizitzeak gaitasun kognitiboak galtzea dakarrela. Zure helburu bakarra bizirautea baldin bada, zure energia mental guztia horretara bideratzen duzu; *tunel efektua* ere deitzen zaio horri.

Menpekotasunak eta nahasmenduak areagotzen al dira?

Osasun mentalaren esparrua oso zabala da, eta antsietatea, depresioa eta suizidioa areagotzen ditu. 2008ko krisiaren ostean, adibidez, Europa hegoaldeko herrialde gehienetan suizidio tasa handitu egin zen.

Estresak eta antsietateak modu askotan eragiten du pertsona bakoitzarengan, eta batzuek alkoholera, drogetara edo jokora jotzen dute, eta beste batzuek elikadura nahasmenduak gartzen dituzte.



“

OEU bermatzeko dirua atera daiteke eta zenbakiek ahalbidetzen dute, eta horrek handitzen du langile klaseak negoziatzeko duen gaitasuna, egin nahi ez duen lan bati ezetz esateko ahalmena, esaterako”

Azkenaldian badirudi gaixotasun mentalek nabarmentasun publikoa irabazi dutela.

Gai tabua zen, eta izaten jarraitzen du, baina gaixotasun mental batzuen estigmatizazioa gutxitzen ari da, estresarena

eta antsietatearena adibidez. Azken finean, zer da estresa? Arrisku baten aurrean gure gorputzak duen erreakzio adaptatibo bat da, eta gorputza alertan jartzen du. Alerta hori iraunkorra denean higadura sortzen doa.

Faktore zehatz batengatik bada, ez da ezer pasatzen. Ehiztariak ginenean eta animali batek jarraitzen gintuenean, alerta horrek bizirautea laguntzen zigun. Gaur egun, baina, egunero leopardo bat jarraiki duzunean, eragin larriak ditu. Munduan egin diren plan pilotu guztiek frogatu dute oinarritzko errentak estres maila jaisten laguntzen duela, eta eragin positiboak dituela osasun mentalean.

Denbora tarte laburretan gainera.

Bi edo hiru urte eskasetan emaitza positiboak ikusi dituzte. Kanadan egin zuten proba pilotuan, esaterako, fenomeno interesgarri bat antzeman zuten ikertzaileek: proba egin zuten eskualdeetako ospitaleetan sarrerak gutxitu egin ziren. Ez da gaian aditua izan behar ikusteko oinarritzko errentak lasaitasuna handitzen duela eta estres edo antsietate egoeretan erortzea saihesten laguntzen duela. ●

GINARRIZKO ERRENTA

Baldintzarik gabeko oinarrizko errentaren lehen pausoak Katalunian

Oinarrizko errenta unibertsalaren inguruko eztabaida Kataluniatik Euskal Herrira ekarri dute Laura Vilagrà i Pons Generalitateko aholkulariak eta Sergi Raventós. Otsailaren 25ean EHUK Bilbon duen Bizkaia aretoan izan ziren bi katalanak, Julen Bollain ikertzailearekin batera, eta OEUn eta Kataluniako proiektuaren inguruan aritu ziren. Eztabaida hau, baina, duela urte batzuk piztu zen Espainiako Estatuan, Podemos alderdiaren sorreraren ostean, baina handik gutxira urtu egin zen, beste gai batzuei atea irekitzeko. Zer da, baina, Oinarrizko Errenta Unibertsala? Eta aplikagarria al da Mendebaldeko estatuetan?

 IÑAUT GONZALEZ DE MATAUKO  HODEI TORRES

Oinarrizko Errenta Unibertsalaren beharra ez da ardura berria. 1980ko hamarkadan hainbat pentsalarik, Philippe van Parijs filosofo belgikarra tartean, Europako herrialde gehienek pobrezia aurre egiteko zeuzkaten politikek emaitza onik lortzen ez zutela ondorioztatu zuten, eta gehitu zuten herri-

tarren gehiengoak ez zuela askatasunik haien bizitza nahi moduan garatzeko.

Hala ere, XVIII. mendean ere aurki ditzakegu antzeko gaia lantzen duten politikari eta pentsalariak. Frantziako eta Ipar Amerikako iraultzen garaian, Thomas Paine, esaterako, adierazi zuen herritarrei oligarkiek desjabetutako lurrek eta basoek sortutako aberastasuna errenta forman itzuli behar zitzaizela.

XXI. mendearen hasiera honetan inoiz baino garrantzitsuagoa bihurtu da OEU. Mendebaldeko herrialdeak kapitalismoaren egiturazko produkzio krisi betean daude murgildurik, eta hori klase ertainen suntsitzea eragiten ari da, 2008ko krisi finantzarioak eta koronabirusaren krisiak bultzatu dutena. Testuinguru horretan, OEU aurrera ateratzeko ahaleginak egiten ari dira Katalunian.

2001. urtera egin zuen atzera Generalitateko aholkulari Laura Vilagrà Katalunian OEUn ideiak zer nolako bilakaera izan duen adierazteko. Urte horretan jaio zen *Red Renta Básica* (Oinarrizko Errenta Sarea), aurreko hamar urteetan oinarrizko errenta lortzeko lanean aritu zen jendea batuz. Hurrengo urtean, 2002ko otsailaren 12an, ERC eta IU-ICV alderdiek proposamena aurkeztu zuten Kataluniako Parlamentuan, OEU ezartzeko lege proiektua Espainiako Gorte Nagusietara eramateko. Hala ere, proposamenak ez zuen jarraikotasun handirik izan.

Handik gutxira Red Renta Básica nazioarteko BIEN (lehen *Basic Income European Network*, orain *Basic Income Earth Network*) elkargoan sartu zen, eta 2004an nazioarteko kongresua Bartzelonan antolatu zuten. Hala ere, urte askotan bigarren mailan geratu da borroka hori, nahiz eta zenbait eragilek oinarrizko errentaren inguruan lanean jarraitu.

2021eko Kataluniako hauteskundeak OEUn aldeko borrokan "inflexio puntu" izan zirela dio Kataluniako OEUn Plan Piloturako Bulegoko zuzendaria Sergi Raventós; izan ere, CUP alderdi ezkertiarrek plan pilotua garatzea jarri zuen bere hauteskunde programan, eta ERC alderdiko Pere Aragonésen inbestidurarako negoziaketetan ezinbesteko puntutzat ezarri zuen CUPEk. ERCK onartu egin zuen, eta 2021eko urrian OEU ezartzeko Plan Piloturako Bulegoa ireki zuten, Raventós buru.

PLAN PILOTUA, AURRERA

Sergi Raventós taldearen helburua Plan Pilotua diseinatzea, antolatzea eta ezartzea da, eta horretan ari dira. Plana garatzean, bi urteko entsegua egingo dute, lagin zehatz batekin. Raventós adierazitakoaren arabera, askotariko adin, genero eta gizarte sektoretako 6.000 eta 8.000 pertsona inguruk hartuko du parte. Herri txiki batzuetako biztanleriarekin egingo dituzte probak, eta horien



emaitza alderatuko dute bestelako baldintzapeko errentek izan dituzten emaitzekin.

Plan Pilotuaren garapenerako Kataluniako Generalitatearen laguntza du bulegoak, baina Sergi Raventósek dio abagune politikoak asko eragin dezakeela: “Alderdi ezkertiarrek gobernuan gehiengoa izatea ezinbestekoa izan da Plan Pilotua martxan jartzeko, baina indar korrelazio aldaketa batekin dena zapuztu dezake”.

KRITIKEI, ERANTZUN ZUZENA

Oinarrizko Errentaren Sarea lanean izan den ibilbide luzean kideek ez dute inoiz kritiken faltarik izan. Raventósen esanetan, kritika gehienak sektore liberal eskuindarretatik datoz, eta ohikoena da OEUren bideraezintasuna. Sektore horietatik errentaren bultzatzaileei leporatzen diete “ezinezkoa” eta “bideraezina” dela herritar guztiei, existitzeagatik bakarrik, 700 edo 900 euro ematea, baina OEUren aldekoek argi dute iruzurrari aurre egingo dion politika fiskal zurrunago batekin bideragarria dela errentaren ezarpena: “Kalkuluak eginda ditugu jada, eta guztiz bideragarria da”, dio Raventósek.

Beste ohiko kritika bat da oinarrizko errenta ezarriaz gero jendeak lan egiteari utziko diola. Hala ere, Raventósen esanetan, munduan egin diren entseguek frogatu dute hori gezurra izateaz gain, jendeak baliabide gehiago duela nahi duen lana bilatzeko edo ikasketak aurrera ateratzeko: “Gaur egun, tamalez, jende askok utzi behar izaten ditu ikasketak. Oinarrizko errentak aukera emango lioke gehiengoari ikasketei heltzeko eta etorkizunean lan hobea izateko”.

EUROPAKO SAIAKERA NAGUSIA HELBURU

Kataluniako Generalitatea eta OEUren aplikazioarako Plan Pilotuaren Bulegoa elkarlanean egiten ari diren lanaren birtartez Europako entsegurik handiena egin nahi dute. Kontinente osoan, Finlandian egin dute orain arte proiekturik handiena, baina azkenean ez dute aplikatzea lortu. Hala ere, Europako mugetatik at, herrialde askotan probatu dituzte oinarrizko errentak: Indian, Kenian, Kanadan, Iranen eta Israelen, esaterako.

Orain arte Keniakoa izan da saiakera nagusia, eta probetan jarraitzen du

oraindik ere, 2017. urtetik. Hainbat herrixkatako 5.000 biztanleri hilabeteen 23 dolar ematen dizkio Give Directly Gobernu Kanpoko Erakundeak, hama-bi urtez, eta beste 16.000 biztanle inguruk hileroko errenta berdina jaso dute bi urtez, eta nahiz eta proba oraindik martxan egon, emaitza positiboak ikusi dituzte. Errenta jasotzen duen herrixketako jendeak, oinarrizko beharrak asetzeko ahalmen ekonomiko handiagoa du, eta osasun fisiko eta mentalean eragin positiboak antzeman dituzte.

Bestalde, jendearen arteko gatazkek ere behera egin dutela adierazi dute. Azkenik, gutxieneko diru sarrera izateak “itxaropena” eman diela diote biztanle batzuek, eta itxaropenak “poztasuna” dakarrela azpimarratu dute.

Katalunian Oinarrizko Errenta Unibertsala probatzeko proiektua aurrera doa pixkanaka, eta beste herrialde batzuetan ezartzeko aurrekaria izan daiteke. Aldeko eta aurkako arrazoiak mahai gainean daude, baina saiakeretatik ateratako ondorioei egin beharko zaie bereziki kasu, horiek erakutsiko baitute zer nolako eragina duen oinarrizko errentak biztanleriaren gehiengoaren osasunean. ●



2016ko apirilean jantzi zituen azken aldiz botak Ines Osinagak Gosereren kontzertu baterako. Haurdun zegoen eta laster itzuliko zela zin egin zien begira zituen ehundaka neskei. Baina ez zen itzuli. Osinagak maite du Amaia Arrazolaren ilustrazio-liburua, *El meteorito*, hala bizi izan duelako amatasuna: eztanda egin du bere identitatean, bere bizimoduan, bere sormenean.

Erdiondoko depresioaren eraginez, barruan musika itzali zitzaiola sentitu zuen

plazandre honek. Insomnio gau batean, Miren Amurizaren zutabe bat irakurri zuen; Mercedes Sosaren *Todo cambia* kantaren letra euskaratu zuen bertsolariak. Ukelelea hartu zuen Osinagak, abestia jo, eta Amurizari audioz bidali zion, hurrengo mezuarekin: "Eskerrik asko. Gaur nire bizitza salbatu dostazu". Geroztik, sormen handiko garaia depresio eta dolu berriekin uztartu ditu, azken hauek ezkutatu barik. Izan ere, mikrofonoa eskuan izatearen ardura baliatu nahi du tabuak urratzeko.

"Gose musika taldeko abeslaria eta soinu jotzailea da". Oraindik ez dute Wikipediako zure orrialdea eguneratu.

Ez da erraza izan identitate horretatik askatzea. Dolu guztietan bezala, egon naiz Ines harekin haserre, arneguka, faltan bota dut, baita soberan ere. Sei urteren ondoren, onartu behar dut oraindik telefono agenda askotan agertzen naizela *Ines Gose* bezala. Orain gai naiz Ines hori besarkatzeko, maitasunez begiratzeko eta eskerrak emateko. Egindako bidearen parte da.



“*Nik ez dut nire ahizpekin lehiatu nahi, elkarri autoritatea eman baizik*”

Ines Osinaga

Musikaria eta plazandrea

Ines Osinaga musikari eta plazandreari BIRA kultur gunean egindako elkarrizketaren transkripzio mutua da hurrengoa. Solasaldian zehar, Maurizia Aldeiturriaga, Lourdes Iriondo eta Kai Nakairen ahotsak zein abestiak sanpleatuz eta horien bertsioak eginez jantzi zuen sortzaile feminista honek bere hitz-jario bizia, gardena eta gordina.

 JUNE FERNÁNDEZ  KLAUS (BIRA)

Zure Wikipediako orrialdea eguneratuko banu, *plazandre* berba nabarmenduko nuke.

Kontzientziaz egin dudana hautua da nire burua plazandre gisa definitzea. Askotan esan dut ez naizela trikitilaria, nahiz eta trikitia jotzen dudana; horrek zerikusia du genero arrakalekin eta performatzen dugunarekin, besteak beste. Bi ofizio desberdin dira musikariarena eta plazandrearena. Ni musikaria naiz, baina gainera konturatu naiz gustatzen zaidala plazara ateratzea, plazan eragitea, espa-

zio publikoa okupatzea, nire ahotsa uztea. Noski naizela plazandre, zer demonstre! 25 urte daramatzat plazan! Onintza Enbeitarekin bat nator: plazandre garelako esatea apropiazio ariketa bat da, esan digutelako plaza ez dela guretzat.

Orain dela hilabete batzuk hasi zara plaza berri batean eragiten: Instagram.

Bai, gustatzen zait *story*-en bidez gauzak kontatzea; amatasunei, biolentzietei edota feminismoari buruz... Aurretik, sare sozialan kuxkuxeatzen nuen, baina ez nuen

ahotsik. Myspaceren garaian, Goserren blogean kriston lana egiten nuen. *Bondage* abestia atera genuenean, orria zentsuratu ziguten. Haserretu nintzen! Edukiak sortzen energia pila inbertitzen zenuen, eta edozein egunetan itxi zezaketen, segurtasun kopiarik gabe. Bestetik, sareek antsietate soziala ematen didate; horregatik ez daukat Whatsappik. Korapilo handia izan dut, baina erabaki dut espazio horretan nire ahotsa utzi nahi dudala. Lagun batek dio hasi berriaren bizipozarekin nagoela. Hala da!

Bideo batean azaldu zenuen hobe dugula emakumeen ikusgarritasuna sustatu baino, elkarri autoritatea ematea.

Ainara LeGardonen hitzaldi batean entzun nuen ideia hori. Askotan deitzen naute feminismoari buruz hitz egiteko. Guai dago baina, Uxue Alberdik esan bezala, badirudi bakarrik dugula autoritatea feminismoaren inguruan hitz egiten dugunean. Ikusgarritasuna lehiaketa bat da. Borroka egiten dugu gure artean, etengabe, kartealeko emakumea izateko, martxoko zikloko musikari feminista izateko. Nik ez dut lehiatu nahi nire ahizpekin, nahi dudana da elkarri autoritatea eman, elkarri lekua egin. Ez dut horretarako sortu nahi eta, batez ere, ez dut hortik sortu nahi.

Zure musika jarri diot nire aitari, eta Kepa Junkeraren oinordekotzat hartu zaitu. Ziur nago etengabe gertatzen zaizula; ez ordea Maurizia Aldeiturriagarekin.

Kepak eragin dit, baina kontua ez da nork eragin didan, baizik eta nori ematen diogun erreferente izateko autoritatea. Esan didatenean Gose erreferente izan dela musika elektronikoa eta trikitixa batzeagatik, apaltasunez erantzun dut ezetz. Noski izan garela erreferenteak! Erreferente guztiak behar ditugu. Nik behar ditut Anari eta Kai Nakai. Adin batera arte, emakumeok ez gara erreferente, promesa baizik. Baina adin horretara heltzen garenean, gure gizonezko kideak musikari sakratuak direnean, guri amatasunari buruz galdetzen digute, edo "Noiz arte pentsatzen duzu plazan egotea ba?". Noiz arte? Onintzak [Enbeita] esaten duen bezala, orain hasi da hau dibertigarria izaten!

Instagramen idatzi duzu: "Hil ezazu aita' entzunaz hazi gara eta ama guztiak besarkatzea erabaki dugu".

Azken aldian, euskal kulturari buruz entzun dudana diskurtsoa da transmisioa eten egin dela, gazteek ez dakitela nor den Mikel Laboa. Agian ez dago gaizki, agian aukera bat da, agian haria eten behar da. Eztabaidatu behar dugu nork duen lekua euskal kulturari, nork ez eta zergatik. Noren ahotza heldu den nora. Zergatik Mikel

Laboaren irrintziak baloratzen diren eta Mauriziak txarto kantatzen duen.

Nor da Maurizia?

Maurizia *señora* zoragarri bat da, plazandrean ama eta amama. Sinbolo gisa aldarrikatzen dugu, ia ikono pop gisa, *hashtag* eta guzti. Bada izateko modu bat. Galdetzen omen zioten: "Zergatik esaten duzu etengabe 'Aupa Maurizia!' kopletan?". Eta hark erantzun: "Beitu, nik bi gizon dauzkat ondoan. Batek alboka jotzen du eta ahoa okupatua dauka; besteak soinua jotzen du baina hitz-totela da. Ez badut esaten, nork aupatuko nau ni?". "Aupa Maurizia!" aldarri feminista da.

Proiektu kolektibo bilakatu da: "Mauriziak ez dau inor hil".

Bai. Leire Palaciosi ikusi nion poltsa bat, "Deabruak ez dau inor hil", eta aldarri hori otu zitzaidan. Olatz Salvador, Lorea Argarate eta Itziar Soraluzerekin nabil, baina andra desberdinak batzen gabiltza, Maurizia desberdinak plazaratzeko. Uxuek sarrera-testu bat idatzi zuen, arkitekto baten ikerketa batean oinarritua, Espainiako Estatuan erailketa matxistak

non ematen ziren zerrendatzen ditue-na. Beldurgarria da: etxean, senarrak, etxean, senarrak. Ane Labakak eta Nerea Ibarzabalek ere koplak egin dizkigute. Chavela Vargasen doinu bat hartu dugu kopletan egiteko. Arin-arina *perreo* bihurtzen dugu. Beno, etorri ikustera!

Wikipediara itzuliko naiz. Lourdes Iriondoren biografiaren hasieran jartzen du...

... ez esan! "Xabier Leteren emaztea da".

Bai! Eta Xabier Leteren orrialdera jotzen badugu...

... "artista konsagratua da".

Ez du aipatzen noren senarra zen.

Tontakeria bat dirudi, baina ez da. Euskal kulturaren genealogia plazagizonena da; gauza *totxoak* esan zituzten poeta horiena, haien artean elkartzen zirenak, Zumetak azal ezin ederrago bat egiten zien... Ez diot edertasunari uko egiten, baina kanona da! Eta Mauriziak kanonari egiten dio: *tururu!* Ohartzen naiz 40 urterekin eta 25 urteko plazandre ibilbi-dearekin esan ditzakedala horrelakoak.

Goseko Ines asko lotu izan da probokazioarekin, sexualitatearekin. Nola ikusten duzu egun?

Psss esan nezake, baina jartzen naiz 20 urteko neska horren azalean, begiratzen dut maitasunez, samurtasunez, eta esaten dut: "Aupa Maurizia, *txikita!*". Virginie Despentesek idatzi zuen bezala, izan behar gara ederrak baina ez gehiegi, izan behar gara argalak baina ez argalegi, izan behar gara emakume baina ez larregi, izan behar dugu seduktoreak baina ez putak. Izan behar gara abeslari onak, bestela ez gara igoko eszenatokira, baina ez perfektuak. Mediokritateaz apropiatu gaitezen! Elkarriketetan etengabe ateratzen zidaten sexuaren gaia, Gosek bazituelako pare bat kanta horri buruz. Baina bat edo bi, benetan! Hasierako kontzertuetan, lehengo ilaretan zulo bat zegoen, leku hori beti okupatzen zuten gorputzak deseroso sentitzen zirelako, nire botekin eta nire begiradekin eragiten nuena ez zelako nigandik espero zena. Neska bat desiratu agertu behar da, ez desiradun. Konturatu nintzen nire erotikare-



kin botere harremanei buelta emateko gai nintzela. Orduan, gona are gehiago moztu nuen, *krask!*

Instagrameko argazki batean etzanda agertzen zara, biluzik. Bularretik esne-txorrotada bat ateratzen duzu, plazer keinuarekin, zure bi umeak begira dituzula. Probokatzeko bide berri bat topatu duzu?

Azken sei urteotan nire titiak plazan egon dira etengabe, baina nire gorputza erabat deserotizatu da, ama gisa irakurrria naizelako. "Desirak ihes egiten dit ezpainetatik" idatzi nuen haurdunaldi batean; sentitzen nintzen dena haragi, dena sexu. Probokazioa baldin bada nigandik espero den hori zalantzan jartzea, edota jokoaren arauak gure alde erabiltzea, atsegin dut. Askotan plazandre moduan performatu nahi dudana ez dator bat nire intimitatean bizi dudana-rekin. Shirley Manson Garbage taldeko buruak, Bilboko kontzertuan esan zuen: "Mikrofono bat eskuan edukitzea ardura bat da".

"Ez dakit zergati bi titik beldurtzen zaituzten hainbeste" idatzi zenuen orduan. Aupa Rigoberta Bandini?

Rigobertarekin konektatzen dut edoskitzearekin izan dudana borrokagatik. Badirudi edoskitzea naturala dela, baina niretzat hautu politiko bat izan da, asko kostatu zitzaidalako. Horregatik, *laktibismoa* egiten dut. Maite ditut nire titiak eta maite ditut esnerik botatzen ez duten titi guztiak. Ohartu naiz nire titia esne txorrotada batekin agertzen denean, Instagramek ez didala zentsuratzaren, algoritmoak ez duelako titiburu gisa irakurtzen!

Nola eragin du amatasunak zure sormenean? Blokeoaren beldur zinen.

Eta gertatu zen. Nire lehenengo erdiondoan, musika itzali zitzaidan barruan. Ez nuen trikitia jantzi nahi, nire gorputza errefusatzaren nuelako. Nire beldurrik handiena zen: "Eta ez badut inoiz musika berriro egiteko gogorik?", "Eta agortu baldin badira *estribilloak*?". Gerora jakin nuen erdiondoko depresioa izan nuela eta ez zitzaidala niri bakarrik geratu. Ez dut honi buruz hitz egiten ni neu osatzeko (horretarako terapiara noa), baizik eta inportantea delako plazan honi buruz hitz egitea. Tabu pila batek zeharkatzen du amatasuna. Maitasun erromantikoa deseraikitzen hasi nintzenean bezala sentitu nintzen hasieratik: zenbat



“Tabu pila batek zeharkatzen du amatasuna. Maitasun erromantikoa deseraikitzen hasi nintzenean bezala sentitu nintzen hasieratik: zenbat min eta gezur!”

min eta gezur! Jendeak esaten zidan: "Ai, ze ondo haurdun zaudela!". Behin erantzun nuen: "Ba ez nago ondo". Espero da gure mina isilik eramatea. Ez dugu zertan haurdun zoriontsu izan behar beti, zer demontre!

Erdiondoko depresioaz gain, beste bi tabu hautsi dituzu: indarkeria obstetrikoa eta heriotza gestazionala. Haurdunaldi guztiak ez dira bukatzen bizirik jaiotzen den ume osasuntsu batekin. Uste horrek kaiola batean sartzen gaitu, sekulako sufrimendu eta bakar-dadearekin. Hiru haurdunaldi izan ditut eta bigarrenetan hildako ume bat erditu nuen. Esaten dizutenean dena ondo joango dela... Beti ez da ondo joaten. Alutik ez da beti bizitza jaiotzen, eta bizitza ez da beti alutik jaiotzen. Paula Bonet ilustratzailearen liburu zoragarria erosi dut, *Roedores. Cuerpo de embarazada sin embrión*, baita enbrioi baten bere margolana ere. Oraingoz ezin izan dut Alaine

Agirrereren *Karena* irakurri, mina ematen didalako. Baina ahotsa eman behar zaio min horri.


Eskerrak feminismoak zeharkatu ninduela amatu aurretik! Nire amak izan ez zituen erremintak izan ditut, gertatu zitzaidana kudeatzeko. Denok gara alabak, gure belaunaldia biolentzia obstetrikos inguratuta jaio da eta zauri hori sendatu gabe dago. Oraindik ere, erditzean gulgandik espero da otzanak izatea. Erditze errespetatua gure eskubidea da, baina txikien eskubidea ere bada indarkeriaz inguratuta ez jaiotzea. Benetan sinesten dut hori bermatzeak mundua aldatu dezakeela.

Musikaz bete da zure barrua berriro. Egun Joseba Sarrionandiarekin kolaboratzen zabilta. Zertara zoaz martxoan La Habanara?

Depresioaren alta hartu nuenean, irakaskuntzako nire lanean eszedentzia eskatu nuen. Bestela ezingo nuke sortu, Mauriziaren proiektu kolektiboa dinamizatu... Zor bat nuen nire buruarekin: nola izango litzateke lanaldi osoko sortzaile banintz? Sortzeak denbora eskatzen du, eta denborak dirua.

Orain dela hamar urte musikatu genituen Joseba Sarrionandiak idatzitako testuak, eskuz esku Euskal Herrira etorri zirenak. Orain, Joseba hemen dagoela, ni neu joango naiz Kubara, La Habanako Mauriziekin biltzera. Nolakoak izango lirateke kanta horiek hain txuriak ez balira? Horixe erakutsiko du *Itsasoa da bide bakarra* proiektuak. ●

Mozart eta Salieri uste baino hobeto konpontzen ziren



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Viena, 1791ko abenduaren 5a. Wolfgang Amadeus Mozart konpositore handia hil zen. 35 urteko gaztearen karrera emankorra eteteaz gain –600dik gora obra utzi zituen–, heriotzak Antonio Salieri (1750-1825) konpositore italiarrarekin zeukan lehia eta areriotasun bizia ere eten zuen. Edo horixe iritsi zai-gu poesiaren, musikaren, antzerkiaren eta zinemaren bidez. Historialariek, ordea, oso bestelako iritzia dute: ustezko etsaitasuna Mozart hil zenean hasi zen handitzen, Salierik pozoitu ote zueneko zurrumurrua zabaldu zenean.

Pozoiketak inongo oinarri historikori ez duen arren, zurrumurrua Aleksander Pushkin (1799-1837) idazlearengana iritsi zen eta errusiarrak poema batean jaso zuen gertakaria. Poema hori oinarri hartuta, Nikolai Rimski-Korsakov (1844-1908) konpositoreak *Mozart eta Salieri* izenburuko opera sortu zuen gero. Aurrerago, Peter Shaffer (1926-2106) gidoilari eta dramaturgo ingelesak ere Pushkinen poema izan zuen inspirazio iturri 1979an *Amadeus* antzezlanaren sortzeko. Eta, azkenik, Milos Forman (1932-2018) zuzendari txekiarrek antzezlanaren zinemara eraman zuen 1984an arrakasta handiz, eta zortzi Oscar sari irabazi zituen.

Salierik eta Mozartek hizka-mizkak izan zituzten; musikariaren bizimoduak gogorra zen eta publikoa nahiz mezenasak inguratzeke lehiatu ohi ziren. Baina, oro



BARBARA KRAFFT / WILIBROD JOSEPH MAHLER

Mozart eta Salieri etsai amorratuak zirela sinetsarazi digute literaturak eta zinemak.

har, biak adiskideak ziren eta elkarri lagundu zioten behin baino gehiagotan. Esaterako, *Flauta miragarria* operaren estreinaldian, Mozart Salieriren bila joan zen, sartzeko ilaran zain egon ez zedin. Eta Salierik Mozarten obrak programatu zituen Bohemiako Leopoldo II.a erregearen koroatzeko.

2015ean Timo Jouko Herrmann musikologo alemaniarrak galdutzat jotzen zuen obra bat aurkitu zuen Pragan: *Per la*

ricuperata salute di Ofelia 1785eko kantata. Konpositoreen atalean hiru izen ageri dira: “Cornetti” –gaur egun oraindik ez dakigu nor zegoen ezizenaren atzean–, Wolfgang Amadeus Mozart eta Antonio Salieri. Beraz, elkarri mesedeak egiteaz gain, elkarrekin musika ere sortu zuten biek. Baina gorrotoa, joko zikina eta ustezko hilketa interesgarriagoak dira nonbait, lankideen arteko harreman on soilak baino. ●



ANDY CHOPPING / MOLA

Luxuzko hotela Londiniumen

Londresko Museo Arkeologikoko (MOLA) kideek erromatar mosaiko handia topatu berri dute Southwarken, Londinium zaharraren kanpoaldean. Mosai-ko 8 metro luze da, Londresen azken 50 urtetan aurkitutako handiena. Adituak harrituta daude, mendetan asko eraiki den eremu bat izanik ere, mosaikoa oso

egoera onean aurkitu dutelako. II. edo III. mendeko mosaikoak *mansio* handi baten triklinioa apaintzen zuen, eta kokapen estrategikoa zeukan, Londiniunera sartzeko bide nagusian baitzegoen. Arkeologoen uste dute bidaiariek ostatu hartzeko erabiltzen zutela eraikina, alegia, erromatar garaiko “luxuzko hotela” zela. ●

EKONOMIA ERALDATZAILEA

Nola saretu eskualde bat

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Sareak badira askotarikoak. Sarea izan daiteke hari edo burdinazkoa, arrantzarako edo ehizarako balio dezake, sarea baliteke trikimailua izatea ere, tranpa, edo internet bera. Sarea izan liteke armiamarena. Sarea izan liteke soziala. Edo babes-sarea. Azken esanahi honetan oinarrituta sortu zen *Beterri-Saretuz* ekimena 2019an Beterri-Buruntza bailaran eta 2022rako helburuak eta ekintza plana aurkeztu berri ditu otsailaren 17an Usurbilen.

Kanpo komunikazioan jarriko dute arreta eta indarra aurten ekimenean, aurtengo ekintza planaren azalpenetan azpimarratu bezala. Hezkuntza eta enpresen arteko elkarlana bultzatu nahi dute eta hezkuntza zentroekin elkarlanean aritzea da 2022ko asmoa.

Ekonomia Sozial Eraldatzailearen bueltan dabiltzan eskualdeko hainbat enpresa eta eragile biltzen hasi zirela badira hiru urte. Esperientziak trukatu eta eskualdean eragiteko helburuz ekimenak martxan jartzen hasi ziren eta hori izan zen parte-hartzean oinarritutako ekosistema enpresarial bat sortzeko ernamuina. Beterri-Saretuz. Sarea egituratzeko lanetan

aritu dira denbora honetan “batzen gaituzten ezaugarriak topatuz eta batera egin nahi duguna zehaztuz”, diote aurkezpenean, eta partaideen eskakizun nagusietakoa izan da praktikara pasatzea interkooperazioaren bidez. Pauso berri horri ekin diote orain.

Bidean sortu dituzte enpresetan parte-hartzea sustatzeko gida, beste eskualdeetako proiektuen berri izan dute eta formakuntza jaso dute ahalduntzearen edo interkooperazioaren inguruan. Azpimarratu dute interkooperazioaren garrantzia oraingoa bezalako krisi garaietan, eta kapital metaketa hutsetik ihes egiten duen eredu bat bultzatzeko, lurraldean bertan dauden proiektu eraldatzaileak elkar zaindu eta elikatzea dela gakoe-tako bat.

ARGIA hastapenetatik dago sartuta proiektuan, ulertzen baitu, nahiz eta Euskal Herri osoko proiektu komunikatiboa izan, badela bere printzipioetako bat “lurraldean” eragitea; auzoan, herrian, bailaran... txikitik. Oriako bazter hone-tatik ere eskualdeko beste eragileekin harremanetan jarritz, bestelako lurralde garapen bat aurrera eramatea posible dela sinetsita. ●

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



“Komunikabide independentea delako, dirulaguntzak direla-eta instituzioen txotxongilo diren beste komunikabideetatik desberdina. Eta Euskalduna. Proiektu honetan sinesten dut. Gora Herria.”

Legazpiko Elena

“Merezi duelako”

Lasarte-Oriako Iñaki

“Kazetaritza independentea delako”

Hendaia Miren



Usurbilen izan gara Beterri Saretuz ekimeneko aurtengo ekintza plana ezagutzeko.

TXERTATUZ BIKOTEA AHULDU ETA FRUITU GEHIAGO



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Txertaketa garaia bizitzen ari gara. Ez guri jartzen diguten halamoduzko txerto horrena, landareena baizik. Txertatzearen arte zaharra oso ezaguna da gure artean, ekintza horrek duen izen mor doa lekuko: txertatu, mentatu, sestratu, enpeltatu, eztitu, fimatu, txermendu, xartatu, enado, edan, edadu, edadon, edaen, edaendu, eradon, eraun, eragotzi, eskizunatu eta eskisunatu behintzat bai. Batez ere bi txerto mota egiten dira hemen; oraingoa, negukoa adar-mentua da. Gero, udaren bihotzean izaten da begi-mentua. Adar-mentua egiteko, mentu-oina nahi den altueran erabat moztu egiten da eta hor azalaren azpian txertatu nahi diogun barietatearen adartxoak edo mentuak jartzen dira; azala azalaren kontra geratzea da gakoa, elkarri izerdia hartu eta eman diezaioten.

Txertatu nahi dugun barietatearen etorkizuna lotzea da kirurgia ebakuntza honen helburu nagusia. Hazien sorkuntzan ia-ia nahitaezkoa den hibridazioak ondorengoengan aldaketak dakartza, eta amaren kopia berdin-berdinak izatea eragotzen du, bioaniztasun naturalaren alde. Guk ama ez galtzea nahi, ordea! Barietate edo aldaera jakin bat gustuko dugunean nola hala hari eutsi nahi izaten diogu. Adibidez, niri Pelestrin sagarra (*Malus domestica* "Pelestrin") gustatzen zaidanez, ez dut bere ezaugarrietako bat bera ere galtzerik nahi eta betikotu egiten dut. Horretarako aukera bakarra klonak sortzea da. Klonak egiteko amari kentzen dizkiogun adarrak errotu edo itsatsi beste aukerarik ez dago. Errotze hori zuzenean lurrean egin daiteke, baina baita beste landare baten gainean ere. Azken hori da txertaketa. Mentu-oinaren gainean mentua



Sagarrondoaren adar mentua: azpian mentu-oina, gainean mentua.

itsatsarazi eta etorkizunean, beti, bi landare bata bestearen azpian/gainean biziko dira. Bikote asko bezala elkar eraman ezin badute ere, halaxe irautera behartuta daude; eraman ezina zenbat eta jasanezinagoa, orduan eta lore eta fruta gehiago emango dute. Mentu-oin eta mentu bikoteengandik asko ikasteko dugu... Guregan naturala zer den ere gogorarazten digute. Parean parekoa ezin pairatu horrek bere emaitzak dakartza. Eraman ezin horrek izerdi trukea, behekoak goikoari izerdi gordina eta goikoak behekoari izerdi landua ematea, urrituko du. Landarea ttikia eta ahula izango da. Biek sortu duten landare hori, biek osatzen duten hori gutxi biziko da, motz joko du. Bizitza motz ikuste horrek gaineko mentua lore eta fruta asko ematera makurtuko du; laster hiltzera doala ikusten duenez, bere kastako ondoren-

goak sortu nahi ditu. Fruta arboletan ederki ezagutzen da bikoteen eman-hartu hori. Gaizki bizi direnek fruta gehiago emango dute, baina urte gutxi barru hil egingo dira. Oinarri eta arrazoi bera du, gehienbat, inausketak ere, fruta gehiago eman dezan arbola izorratzea, alegia.

Goiko mentuak, fruta ematen duenak, ahulenak, beti behar izango du azpiko mentu oinaren izerdia. Lurrean errotua dagoen horrek baitakarkio landare osoari oinarritzko elikadura. Bikoteak porrot egiten duenean, gainekoarenak egin du, fruta ematen duenarenak. Behekoak, aldiz, bere kasa altsuma edo aldakaitzen bat eman dezake, eta landare berria osatu; berriz txertatzeko prest edo soilik bera, beste inoren beharrik gabe.

Bikote guztiak, izatez, porroterako gaiak dira. Naturala da. Eta guk amari eutsi nahi. ●

NEREA ZOROKIAIN GARIN

“LEHEN ASKO FERMENTATZEN ZEN GUREAN, BAINA KULTURA HORI GALDU EGIN DA”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Hartzidura prozesuetan aditua eta aritua da Nerea Zorokiain Garin nafarra, *Fermentación* liburuaren egilea. Duela hogeitaz bat baino gehiago egin zuen topo hartziduraren munduarekin, erdi-kasualitatez erdi-kausalitatez. “Sukaldaritzako irakaslea nintzen garai hartan, eta etxean zenbait fermentu egiten nituen. Pixkanaka, hartziduraren inguruko oinarritzko ikastaroak eskatzen hasi zitzaizkidan han-hemen, eta horrela hasi nintzen mundu honetan sakontzen”, gogoratu ditu hastapenak. Geroztik, hartziduraren munduak iraultza moduko bat bizi izan du, eta egun, eraldatzeko prozesu horri eskaintzen dio bere jardun osoa.

BIOANIZTASUNAREN GALERA, BARATZEAN EZ EZIK, GORPUTZEAN ERE BAI

Tira, baina goazen oinarritara... zer da zehazki hartzidura prozesua? Honela laburbildu du Zorokiainek: “Mikroorganismoen bidez elikagaiak eraldatzea da hartzidura. Azken batean, mikroorganismoek ugaltzeko eta hazteko darabilten metabolismoa da fermentazioa, eta guk hori erabiltzen dugu haiek utzitako ‘hondakinak’ onak zaizkigulako mikrobiotarako eta elikagaiak digeritzen laguntzeko”. Harreman sinbiotiko moduko bat da xomorro horiekin duguna, beraz: haiek onurak dakartzkigute, eta guk haiei jaten ematen diegu, hazi daitezten.

Barazki fermentuak egiten ditu batik bat Zorokiainek, hain zuzen, horietan hazten diren mikroorganismoak gure gorputzekoen oso antzekoak direlako. Hartzidura prozesuen bidez lortutako mikrobiota birpopulatu eta gorputzean bioaniztasuna sortzen dutela nabarmendu du adituak. Izan ere, baratze eta baso askotan gertatu den bezala, gure barruan ere bioaniztasun galera handia izan dela dio Zorokiainek: “Herrialde ‘garatu’ deituriko hauetan dugun arazo handieneta-



koa da bioaniztasun falta, eta hein batean, horregatik daude gaur egun hainbeste digestio-arazo”. Erdi-umorez, zera gehitu du: “Inork ez du *Lactobacillus* jakin baten desagertzea hitz egiten, baina hori ere gertatzen ari da!”.

GALTZEN JOAN DEN KULTURA

Sagardoa, garagardoa... fermentu gutxi batzuek bizirik dira gure kulturaren, baina nafarrak adierazi duenez, urteen poderioz ohitura eta jakintza handia galdu egin da. “Askok fermentatzen zen hemen garai batean, elikagaiak kontserbatzeko aukera handiegirik ere ez zegoelako batez ere, baina inkisizioarekin kontserbatzeko modua asko erabat galdu ziren. Zergatik? Bada, etxean egiteko ze-

goen kultura eta jakintza galtzea ekarri zuelako”, dio. Noski, horrez gain, hozkailuen eta kontserbatzeko beste modua “erosoago” batzuen sorrerarekin ere, hartzidura prozesuak galdu egin dira.

Duela hogeitaz bat urte, Zorokiain gaitzen bueltan hasi zenean, apenas zegoen informaziorik gaiaren inguruan. Ez ikastarorik, ez internetik, liburu oso gutxi eta guztia ingelesez. Egundakoz zabaldutako dago kontua, eta zabaltzen horretan bere alea jartzen ari da iruindarra. Ikastaroak eta asesoramendua emateaz gain, hartziduraren munduan murgildu nahi dutenentzako nahiz honezkero hasiak direnentzako liburu proposa atera zuen, todostuslibros.com plataforman eskura daitekeena. ●

“ ”

Gutako bakoitzaren intimitatean intimitate komun bat dago

Arantza Santesteban

Kartzelatik atera eta sei urtera, orduko argazki eta gutun artxiboa errebasatzean, ohartu zen Arantza Santesteban (Iruñea, 1979) lehen aldiz esku artean zeukanaren dimentsioaz. Orduan hasi zen forma hartzen *918 gau*, bere militantzia-esperientzia kontatzen duen filma. Iaz estreinatu zenetik, nazioartean sari garrantzitsuak jaso ditu: DocLisboako Nazioarteko Film Onena, Torino Film Festivaleko Nazioarteko Dokumental Onena eta Pontevedrako Novos Cinemasen *Latexos* saria. Euskal Herriko estreinaldia martxoaren 14tik 19ra Iruñean egingo den Punto de Vista jaialdian izango da.

KEPA MATXAIN  DANI BLANCO

Arroztasun sentimendu baten prozesua kontatzen du filmak. Kartzelan bertan hasten zara arrotz sentitzen izan beharko zenukeen preso eredugarri horrekiko: “Manifetako lemek ez didate gehiegi balio egunerokotasuna jasateko”.

Pentsatu nahi dut jende asko sentitu dela arrotz. Identitateak asko ixten dira konpromiso maila handiko militantzia zorrotzetan –eta horrek logika izan dezake, nahiz eta niri ez gustatu–. Nik eza-gututako militantzia-eredua narrazioen oso menpeko izan da –baita ni neu ere–. Kartzelako gutunak eta argazkiak berriro errebasatzean, horixe sentitu nuen oso modu indartsuan: ez nuela aukera askorik izan nolakoa nintzen pentsatzeko, ez eta kolektibo horren irizpideek –esandakoek zein esan gabeek– nigan

zein *krak* sor zitzaketen ohartzeko ere. Kartzela paisaia erabat arrotza da, ezin duzu beste inora joan, tokatu zaizun jendearekin zaude, apenas duzun objektu materialik... bakarrik zaude zeure buruarekin. Une horretan, edo ordura arte sostengatu zaituen narrazioan babesten duzu zure burua, edo konturatzen zara narrazioak ez dizula gehiegi balio –nire kasua–. Kartzelako paisaia eskas horretan paisaia humano oso indartsua dago, eta niri pixkanaka beste gauza batzuk piztu zitzaizkidan. Hori kontatzea kostatzen da, baina badakit ez dela nire prozesua bakarrik izan. Kartzelan ez nituen *krak* horiek guztiak elaboratu, baina sentitzen nintzen oso deseroso. Gero-
ra hitz egin dut jende gehiagorekin, eta eman diot forma bat. Baina une hartan sentitzen nuen ez nintzela militante ona,

ez nuela neurria ematen. Bazegoen esan gabeko exigentzia bat, egoteko modu bat, epai bat ongiaren eta gaizkiaren artean –baita neure baitan ere, noski, horren parte nintzenez gero–.

Ezker Abertzaleak narrazioak eraikitzeke darabiltzan dispositiboaren kontzientzia hartze bat kontatzen du filmak. Behin horiez konturatuta, ezin duzu ezer berdin ikusi.

Dispositiboaz ohartzean, bi gauza egin ditzakezu: dispositibo hori beharrezkoa dela ulertu eta zuk hori elikatzen jarraitu nahi duzula erabaki; edo, bestela, bat-batean ez zara gai haren erre-pikapenean parte hartzeko. Hori al da zure posizio ideologikoetatik urruntzea? Nire ustez ez. Hori da kontzientzia har-





tze une bat –nire kasuan krisi une bat–, zalantza batzuk sortzen zaizkizu, eta kolektiboak askotan ezin dizkizu erantzun –ez du denborarik, ez da bere funtzioa, ez du egiturarik *krak* horiei erantzunezko–. Are, kolektiboak funtzionatzeko duen moduan, inork maila batean edo bestean *krak* egiten badu, askotan baztertua izango da. Ez dut besterik gabe desengainu politikoa aldarrikatzen, zalantzarako aukera baizik. Nire ustez, une honetan ez dago gauza politikoagorik kolektiboaren baitan krisiaz kargu egitea baino, aurreikusiz konpromiso militantearen parte izan daitezkeela atsedena, urruntzea edota bakardadea –feminismoak hainbestetan planteatu duena–. Guk daukagun tradizioa beste bat da: XX. mendeko militantzia modue-na. Baina kolektiboak ezin du izan beti aktibo dagoen norbait sostengatzeko egitura bat. Hori eromena da.

Ikuspuntu erabat subjektibotik kontatzen da filma, baina hain justu subjektibotasun horren dimentsio politikoa aldarrikatzen duzu zuk. Lehen pertsonako ahots oso markatua ageri den arren, ez dut pelikula intimis-

ta bat egin nahi izan –diskurtso politiko desberdin bat artikulatzeko toki bakarra intimitatea balitz bezala–. Lehen pertsona erabili dut, badakidalako filmean kontatzen denak ni gurutzatzen nauela, baina gutako bakoitzaren intimitatean intimitate komun bat dago. Egia da kartzelan egon den jende batek ez dituela kezka hauek bizi izan. Bizi izan dute esperientzia kolektibo oso indartsua, gogorra eta polita. Ez zen nire kasua izan –eta ezta beste hainbatena ere–. Zerbait hautsi zitzaidan, eta forma berriak bilatu behar izan nituen: zenbateraino errespetatu kolektiboaren mandatuak, eta zenbateraino defendatu inori min eman gabe nire izaeraren parte diren zenbait alderdi. Horri deitzen diot krisia, baina aldarrikatzen dut krisi horren alde politikoa. Kolektibotasunak norbanako arduratsuak behar ditu, eta nik bizi izandako esperientzian kolektiboaren izenean gehiegitan hutseratu izan da diskurtso egituratuetatik haratago disonantzia edo zalantzaren bat izan duena. Arduratzen nau ezkerre naltagiko eta beldurti bilakatzeak, egiteko eta pentsatzeko moduak aldatu nahi ez dituen. Horrek talde bezala asko pobretu gaitzake.

Estereotipoaren aurkako borroka da zure aldarrietako bat. Gutako bakoitza bakan bihurtzen gaituzten ezaugarriak ezin direla besterik gabe bazterrean utzi.

Bai, baina estereotipoa apurtzea ere bihur daiteke estereotipoa. Azken batean, estereotipo, irudi, metafora... horien bidez funtzionatzen dugu, eta oso pretentziosoa litzateke estereotipo guztiak apurtu nahia. Saiatu naiz inor eroso uzten ez duen narrazio forma bat eraikitzen. Duela gutxi hasi naiz zinemagintzan, baina sumatzen dut badaudela esan gabeko zenbait pakto edo konbentzio. Horien aurka egin nahi izan dut, baina izan da jarrera oso intuitiboa, ez batere arrazionala. Hori aldarrikatzen dut nire prozesutik: autonomia, konbentzioen gainetik erabakiak hartzeko gaitasuna.

Hasieran, kartzelako gutunetatik abiatu zinen. Pixkanaka, bestelako baliabideetara jo duzu. Zeintzuk izan dira prozesuan zehar hartutako erabaki formal garrantzitsuenak? Hasieran uste nuen kartzelako gutunetan oinarritutako pelikula bat izango

zela. Baina gutun horiek berrirakurtzean, ohartu nintzen oso “mediatuak” zirela, eta ez zirela aski nik kontatu nahi nuen guztia kontatzeko. Kontu epistolarrak oso erromantizatuta nituen, ziur asko kartzelan egon diren figura handien eraginez –Mandela, Gramsci, eta abar–. Sei urteren buruan berrirakurtzen hasitakoan, uste nuen gutun horietan elaborazio politiko eta existentzial handiak aurkituko nituela. Irakurtzen nituen behin eta berriz, eta ez zegoen horren arrastorik –filmean erabili dutan gutun batean salbu–. Kasu gehienetan gutunak pasatzen ziren kartzelako zentsuraren filtrok, eta horrek baldintzatzen zuen haien forma. Baina ardura guztia ez da zentsurarena: gure arteko kodea oso errepikakorra zen. Elkar agurtzen genuen “irabaziko dugu, jo ta ke, segi aurrera”, eta halakoekin. Bat-batean arrotzak egin zitzaizkidan. Ulertzen nuen zein testuingurutan zeuden idatzita, baina aldi berean ikusi nituen nire bizitza militantean lehen aldiz oso urruti, inoiz baino urrutiago, eta urruntasun horrek harritu ninduen. Behin eta berriz errepikatzen zen estetika bat aurkitzen nuen gutunetan, ez zidana uzten ikusten non zegoen benetan sakontasuna, zer sentitzen zuen jendeak benetan. Pentsamendu estandarretik pixka bat harago joango zen ezer gutxi topatu nuen –nik idatzitakoetatik hasita–. Hor konturatu nintzen: gutun hauek ez dira nahikoak.

Kartzelan zinela jendeak bidalitako argazkietara jo zenuen orduan.

Kanpokoek –maitasun osoz– beren mundua erakutsi nahi diote presoari, ahaztu ez dezan. Bizi izan dudana esperientzia afektibo inportanteenetako bat izan da, oso indartsua eta oraindik asko hunkitzen nauena –uste dut ezkerrek aldarrikatu behar duela afektuen logika bat, solidarioa, egoera zailetan besteari eusten diona–. Bestalde, konturatu nintzen argazkietan ere oso estandarizatuta zegoela dena, eta elementu batzuk etengabe errepikatzen zirela: mobilizazioak, festak, landa paisaiak, lagunak seme-alabak, jaioberriak... Hor sortu zitzaidan galdera –oraindik erantzun bakar bat eman ez diodana–: preso dagoenak zein irudi behar ditu? Izan daitezke horiek, baina izan daitezke beste batzuk. Asmoa oso ederra bada ere, uste dut gutxi gogoetatu dela horren inguruan. Azken batean, irudi horien bidez presoak ezin du hautsi benetako pareta, eta amildegi handia sortzen da kanpoaldearen eta

barrualdearen artean: kartzelako erreallitatea esan ezinezkoa denez –irudikaezina, Georges Didi-Hubermanek esango lukeenez–, kanpokoak ez du aski erreferentzia barruan gertatzen ari dena ulertzeko, eta barrukoak ere ez du bitarteko nahikorik zer bizi duen adierazteko. Beraz, barrukoak jarraitzen du izaten kanpoko munduaren jasotzaile huts bat, eta iruditzen zaigu behar duen guztia dela kanpoko bizitza xurgatzea. Filmean diot: nire intimotasuna kontatzea behar nuen, barruko bizimodua nolako zen azaltzea... kanpokoak kezkatu al gara inoiz benetan barrukoen erreallitateaz? Kartzelatik hainbeste lagun igaro arren, oso pentsamendu gutxi ekoiztu da horri buruz, logika erromantizatuetatik harago: zer sentitzen duen presoak, nolakoak diren botere harremanak, etorkinak nola dauden, nolako den sexualitatea, zer den desira, zer den naturaren absentsia... Torturatuen kasuan ere, antzera. Ez badiogu horri erantzun, izan da narrazio militante erromantizatu batean jarraitzen dugulako, eta hor kartzela instituzio penitentiario gisa ez delako adierazgarria, inporta duena delako preso politikoa uneoro izatea narrazio horren sostengu.

“ ”

Arduratzen nau ezkerra nostalgiko eta beldurti bilakatzeak, egiteko eta pentsatzeko moduak aldatu nahi ez dituen

Beste arrotzasun une bat da ongi- etorrikoa. Poliziak kargatzean, kaosaren erdian sentitu zenuen halako arintasun bat ere, diskurtsoa botatzetik libratu zinelako...

Kartzelan buelta asko ematen dizkiozu ongi-etorriaren une horri. Baina hor ere, ezinbestean, badira aurrez ezarritako konbentzio batzuk. Erabat ulargarria da, hainbeste ongi-etorriarekin ezinezkoa da bakoitza zerotik prestatzea. Kolektibotasun orok behar ditu bizirauteko pautak batzuk. Beharrezko arau kolekti-

boak dira, areago nik parte hartu dudana bezalako mugimendu batean. Baina konbentzio horiek norberak bere subjektibitatek gorpuztu behar dituenean sortzen dira *krak* txiki batzuk –agian ez denei, baina niri bai–. Hainbeste urte barruan egon denarentzat kalera ateratze hutsa sekulako inpaktua da, baita kognitiboki ere. Oroitzen dut kotxera igo eta abiadura sentsazioa, ahaztuta duzu zer den 120 kilometro orduko abiadan joatea. Egoera horretan, iristen zara auzora, eta hainbeste denboran ikusi gabeko lagunak besarkatzeko aureskua dantzatu arte itxaron behar izatea gauza ortopediko samarra da. Badakit konbentzio liturgiko horren parte dela, agian hala izan behar duela, baina niri ez zait hainbeste interesatzen ulergarritasunaz hitz egitea, baizik eta halako egoerek sortzen dituzten disonantziez. Nire subjektibotasunetik saiatzen naiz kontatzen zein antinaturalak ziren egoera horiek. Edo esaten dudanean preso politikoa- ren amesgaiztoetako bat dela ateratzean egingo duen diskurtsoa... horri buruz hitz egiten da kartzelako patioan. Presoak diskurtsoa atera aurretik pentsatzen du. Gehienentzat buruko mina da. Pixka bat ironizatu nahi nuen horrekin. Pelikulan ez dut poliziaren karga legitimatzen –baita zera ere–, soilik diot benetan pentsatu nuela: “Buf, zein ongi, libratu naiz diskurtsotik”.

Filma zeharkatzen duen galdera ez da letra larrizko politikan kabitzen, auzi “humanoetan” egiten du enfasia: nolako jendea gara?

Batzuetan errelato ideologikoez ez dute uzten galdera humanoak zintzoki erantzuten, eta, kontrara, galdera humanoak egiteak jartzen zaitu aurrez aurre benetan politikoa den dimentsioarekin. Gure paradigma politiko guztia eraiki da dikotomietan, eta hortik erantzun sinplistik sortzen dira. Iraultza ala hil? Bada iraultza. Aberria ala hil? Aberria, jakina. Hortik formulatzen diren galderak ez dituzte askatzen gure bizitzetako dilemak. Aldiz, galderak askoz konplexuagoak bihurtzen dira alde humanora biratzean. Ezkerraren etikak ezin du konbentzimenduaren planoan soilik jokatu, galdera oso humanoie erantzuten jakin behar du. Halako kontuak planteatzen direnean beti agertzen da beldur bat: gure zauriez, deserosotasunez eta beldurrez hizketan hasiz gero ez ote zaigun eroriko eraiki dugun gaztelu hori. Bada uste dut arrisku hori hartu beharko genukeela.

Gaztelua erortzeko arriskua?

Ez dut uste eroriko denik. Baina eroriko balitz ere, horrek egiten gaitu indartsu. Ezkerreko pentsalari handienek auzi horiei heldu diete: ez dute pentsatzen gazteluaren egitura indartzeko, baizik eta zalantza horiek guztiak irekitzeko. Oroitzen naiz duela ez asko euskal kulturari buruzko jardunaldi batzuetan norbaitek aipatzen zuela aski dela euskal kulturaren gabeziez eta beldurrez hitz egiteaz, horrela segiz gero jendearen atxikimendua galtzeko arriskua dagoela. Ni diskurtso horren kontra nago, erabat. Kultura bati sakontasuna ematen dio bere gatazkak jorratzeak. Bada ezkerrean berdin: gatazkei iskin eginez ezin da subjektibotasun politikoa eraiki. Edo begira Judith Butler: generoaz pentsatzen ari denean, auziaren konplexutasun guztiak jorratzen ari da. Muturreko tokietara eramaten gaitu, baina gero eskua luzatzen digu, pentsatzen laguntzeko. Feministoi esaten digu genero diferentzian lubakituta egon garela, eta gero, agian binarioa ez dela existitzen. Hori da pikutara botatzea mugimendu bat eraiki duen tesi oso bat. Baina niretzat hori da konpromisoa.

Eragin al dizu filmaren harreraren pentsatzeak?

Bai, harrerak eragin dit, eta harrerak zenbat eragin didan ohartzeak ere zer pentsa ematen dit. Beldurra sentitu dut pelikula egitean, ez nuelako maite dudan jendea mindu nahi. Nire esperientziatik zerbait ateratzekotan, hori da afektuen bidez sostengatu daitekeela zerbait. 70eko hamarkadako langile borroketan, Ikastolen sorreran, bazeuden balio horiek: "Elkartu gaitezen zerbait egiteko, eta norbaitek sufritzen badu, izan gaitezen arduratsuak horrekin". Energia hori aldarrikatzea garrantzitsua da datorkigun bizimoduari aurre egiteko. Bestalde, uste dut oraindik hartzailea asko baldintzatzen dutela errelato handiek –askotan oso sinpleak eta egituratuak direnak–. Edo kontatzen dituzu bizitakoaren alde epikoak, edo errelatoarekiko kuestionamendu txiki bat eginez gero, beste aldera zoaz zuzenean: "Hau jada ez dago egon beharko lukeen lekuan". Desplazamendu oro kontrakotasun terminoetan ulertzen da. Baina ezarritako leku zurrutetatik harago ere bada lekuri, eta nire bokazioa beste leku hori sortzea izan ez bada ere –film honek ez du hori lortuko–, gustatzen zait jendea uztea ikusi duenarekin zer egin oso ongi ez dakiela.



“ ”

Kultura bati sakontasuna ematen dio bere gatazkak jorratzeak

Arreta pizten du filmaren tonu deskriptiboak. Neurritsua da oso, hartzailearen emozioei eragiteko tentazio oro saihestu nahi balu bezala. Off-eko ahotsa idazteko premisa diskurtso emozionaletik aldentzea izan da. Hau pelikula politikoa da, ez da nire trauma emozional bat sendatzeko lekua. Filmak estetikoki bildu nahi du nire ustez prozesu politiko baten parte den sentsazio bat. Nora jo dut? Lengoaiaren destilazio prozesu handi batera. Lehen bertsioan esaten nuen: "pozik nago", edo "triste nago". Irati Gorostidik lagundu dit hala-koak detektatzen. Esaten nion: "Aurkitzen duzunean emozio bat, alarma gorria piztu". Uste dut begirada deskriptibo horretan bizi izandakoaren xehetasun askoz gehiago daudela nire elaborazio emozionalean baino. Ez zait interesatzen pentsamendu elaboratu bat erabiltzea, ez eta ikusleari emozio jakin bat sentiaraztea ere. Deskribapenak leku gehiago uzten diote ikusleari bere bidea egiteko, edo nire bidean niri laguntzeko.

Berlinen grabatutako eszenan, lagun batzuei zure kartzelako kontuak kontatzen ageri zara, eta liluratu egiten dituzu. Hainbeste, zuri buruzko film bat egin nahi baitute.

Eszena horretan pixka bat gogorra naiz nire buruarekin. Baina kontziente naiz –eta hau esatea pixka bat problematikoa da– testuinguru jakin batzuetan eta entzule jakin batzuen aurrean zuk distira egin dezakezula kontatzen baduzu kartzelan egon zarela. Horrekin ez dut kartzela banalizatu nahi, baina nik egin dut distira, eta konturatu naiz distira hori sor dezakedala, eta pelikulan bertan esaten dut: "Konturatzen naiz, hori hor dago, izan dut lehia horrekin". Batzuek esan didate: "Ez baldin baduzu inolako distirarik egin nahi, ez egin pelikularik".

Eta zer erantzuten diozu horri?

Ez dakit, niri asko kostatu zait pelikula egitea. Alde batetik, behar handia nuen bizitako gatazka hauek pelikula batera eramateko, egun kolektibotasun horrekiko dudak afinitatea horko mekanismo batzuk seinatzetik igarotzen dela pentsatzen dudalako. Baina era berean, gogorra da norbere bizipenak modu horretan irekitzea. Harreraren beldur izan naiz. Pelikula autokonplazientea egin nahi izan banu, beste zerbait egingo nukeen. Baina arriskuak hartu ditut, eta uste dut konpromiso bat dela zerbait esateko nahiarekin eta nire esperientziari esanahia bilatzeko behararekin. ●

PUNTO DE VISTA 2022

Bertakoa eta nazioartekoa

Martxoaren 14tik 19ra bitarte ospatuko da Iruñeko Punto de Vista jaialdia, Baluarte Aretoan eta inguruetan. Jone Atenea iruindarraren *Los caballos mueren al amanecer* (2022) filmak irekiko du zinemaldia eta beste hainbat euskal zinemagile ere izango dira protagonista. Arantza Santestebanen, Irati Gorostidiren, Ainara Elgoibarren, Lur Olaizolaren eta Patxi Burilloren lanak ikusgai izango dira, besteak beste.

 AINHOA GUTIÉRREZ DEL POZO  PUNTO DE VISTA



'Lan' izeneko saila da aurtengo berrikuntzetako bat.

Zinema jaialdiaren datak iritsi ahala hasten da atzera begirakoa. Iazko edizioaren aldean badira aldaketa batzuk: azken hiru urteetan Garbiñe Ortégaren zuzendari-tza artistikoaren pean egon den jaialdiak zuzendari berria du aurten. Aurretik, besteak beste, Oskar Alegriak, Carlos Muguirok edo Josetxo Cerdánek zuzendu dute jaialdiaren alde artistikoa. Aurten berriz, lema Manuel Asínek hartuko zuela iragarri zuten joan den ekainean.

Zuzendari berriak hainbat aldaketa proposatu ditu programazioari begira. *Lan* izeneko saila da egin duen ekarpenetako bat. Bertan, zinema dokumentaleko imajinario eta lan prozesuen inguruan hausnartzeko tartea eskaini nahi dute, proiektzioez gainera, filmak egiteko prozesuari leku eginez. Landa-lanak filmen prozesuan duen garrantzia nabarmendu eta emanaldiaren atzean dagoen ibilbideari espazioa eskaini nahi diote. Hurbileko egileen testigantzak, hitzaldiak eta mahai-inguruak izango dira sail honetan.

Sekzio horren baitan dagoen *Paisaia* atalean Ainara Elgoibarren *Rotor* (2021), Patxi Burilloren *Argileak* (2022) eta Anna Guia-Erikssonen *They Speak Too* (2020) izango dira hausnarketagai beste hainbaten artean, egileek gidatutako tartean. Lehenak Zinebi jaialdiko azken edizioako Cineclub FAS saria jaso zuen, eta Tractora Koop-ek ekoitzitako lana da. Filmak mugimendurik ez duten objektu batzuk erakusten dizkigu: autoak eta Wankel motorrak, erlojuak eta esfera armilarrak, pianoak eta sagarrak. Bolex H16 kameraren bitartez mugimendua gauzatzen da, eta gordeta dauden istorioak askatzen dira. Patxi Burilloren lana Elias Querejeta Zine Eskolan hasi zen garatzen, eta ikusten denaren eta ikusten ez denaren sinesmenaren inguruko hausnarketa proposatzen du, gertakari batetik abiatuta: 1931ean bi anaiari amabirjina azaltzen zaie Ezkion, baita, gero, jende-talde zabalago bati ere. Saileko azken pelikulari dagokionez, Luis Francia estatubatuar-filipinarraren idatzi batzuetatik abiatuta, elkarrizketa jartzen du abian hizkuntzaren, erregistro formen eta historiaren agerpen fisikoen artean, filipinar gisa bere pertsona propioa barne hartzen duena.

Inaugurazioa Sail Ofizialean lehiatzen den *Los caballos mueren al amanecer* lanak egingo du eta hori izango da filmaren mundu mailako lehen proiektzioa. Atenearen filma urte luzetako proiektua

da, zuzendaria bizi izan den etxe bateko presentziari lotua. Antonio, Rosita eta Juanito anai-arreben istorioa da, zeinak beti elkarrekin bizi izan ziren, araei ihes egiten zien bizimodua aukeratuta. Batek komikietako marrazkilari bezala lan egin zuen, besteak abeslari liriko gisa, eta azkena ez zen ezertan profesionalizatu. Haien afizio bihurtu zen Mendebaldeko filmen eszenak birsortzea Bartzelonako hainbat txokotan. Zaldian ibiltzen iaioa zen Rositak auzoko haurren harridura sortzen zuen zaldi gaineko mugimenduekin. Hil ostean, gordeta gelditu ziren inork ikusi gabeko haien filmak, beste zenbait argazki, gidoi eta ahots grabaketaren artean. Artxibo horren oinordeko izan ziren Ione Atenea eta bere lagunak gero, urte batzuen os-

tean etxea biziarazi baitzuten. Atenearen lanaz honakoa dio Bárbara Mingo Costalesek: "Zaldiak egunsentian hiltzen dira, eta film bat filmatu nahi denean beti aurkitzen da filmatzeko bidea". Hala erakusten du pelikulak. Sail berean ikusi ahal izango da nazioartean hainbat sari irabazi dituen Arantza Santestebanen *918 gau* ere –aurreko orrialdeetan zuzendariarekin izandako elkarrizketak ematen du obra horretan sakontzeko aukera–.

Punto de Vista Jaialdiak baditu beste hainbat saio ere, sail ugaritan programatuta. Batetik, *Atzera begiradak* deritzona: bi artista eta zinemagileren lana berreskuratzen da bertan. Sailaren helburua zinemaren historia birpentsatzea da, ikusgai izan ez diren lan batzuk



Jone Atenea iruindarraren
Los caballos mueren al amanecer ikusi ahal izango da aurtengo edizioan.

berreskuratuz. Aurtengo kasuan, Amos Vogel eta Nancy Holten lanak eskainiko dira. Land Art mugimenduaren baitan izan ziren diziplina ugaritako artisten lanak bildu ditu Garbiñe Ortégak, zinema arloan ia ezezagunak izan direnak. Bestetik, *Foku Garaikideak* deituriko saila ere bada: bertan egingo zaio tokia artxi-bozko fikzioei, baita Manuela Serraren *O Movimento das coisas* lanari ere. Azkenik, *Hezkuntza programa* ere aurkeztu dute, haur eta gazteei aukera emango diena zinema gertuagotik ezagutu, bizi eta zinema programatzeko oinarriak jasotzeko.

Urtero espektatiba handiak sortzen dituen *X filmak* sailarekin itxi nahi nuke jaialdiaren inguruko aurkezpen hau. 2010. urteaz geroztik, jaialdiak hiru zinemagile gonbidatzen ditu Nafarroan errodatuko den proiektu bana aurkeztera, eta horietako bat aukeratzen dute epaileek finantzaketan laguntzeko mezenasgo gisa. Iazko proiektu aukeratua izan zen Irati Gorostidiren *San Simón* 62 egitasmoa eta urtebeteko epea izan du Mirari Echávarrerekin batera hura garatzeko. Filma Lizaso herrian gauzatu zen *Arco Iris* izeneko komunitatearekin lotuta dago –eta zuzendariaren biografiarekin, haren gurasoak kide izan

baitziren–. 1978an gazte batzuek Liza-so herriko komentua alokatu zuten, eta bertan ahalegindu ziren "normaltatetik at" kokatzen ziren harremanak sortzen. Bi artistek orainaldian dagoenaren inguruan hausnartu nahi izan dute lan hone-tan, eta lehen aldiz ikusi ahalko da euren filma jaialdian.

*Manuel Asínek
hartu du jaialdiaren
zuzendaritza
artistikoa eta hainbat
berrikuntza egin du*

Bestalde, aurtengo beste hiru zinemagile lehiatuko dira saileko saria lortzeko: Blanca Camell Galf, Hugo Amoedo eta Magdalena Orellana. Bakoitzak bere aurreko filmak aurkeztuko ditu, baita proposamen berriaren nondik

norakoak ere. Aurretik egindako lanen bidez saiatuko dira proiektu berriarekiko hariak lotzen, eta oraindik existitzen ez den filma ahalik eta bisualen bihurtzen. Lehenak *Tombent les heures* (2018) filma aurkeztuko du, Montreuil-leko (Frantzia) kaleetan maitearen bila galtzen den neska baten ingurukoa. Amoedok *Europa* (2017) lana aurkeztuko du, bizipen pertsonalekin eta bere artxibotik abiatzen den Europarekiko miresmenaren galtzea ardatz dituen. Orellanak berriz, bost film labur erakutsiko ditu diseinua eta zinema nahasten dituztenak.

Aurtengoaren laburpen honekin gonbita luzatu nahi nuke, zinemazaleak Iruñeko kaleetara joan daitezen martxoaren erdialdean. Nazioartean esanguratsua den jaialdi honek badu lotura bertan egiten diren lanekin. Aspal-didanik dira zinemagile nafarren lanak inaugurazioan, Nafarroan gauzatuko diren proiektuak ekoizten dira, Euskal Herriko lanen erakusleho eta hausnarketa-tokia da, bertako ekoizpenentzako industriaren topagune da... Hainbat zinemaldik nahiko lukete maila horretako inguruko lanek euren jaialdietan horrenbesteko presentzia izatea. Kasu honetan, behintzat, lorpen handia da. ●



*Jaso etxean bertan zientziari eta
teknologiari buruz jakin nahi
duzun guztia*

elhuyar
aldizkaria

HARPIDETU!



LIBURUA

Bakarrik eta ikaraturik



**TIK, BAKARRIK.
TAK, IKARAK**
**PATXI ZUBIZARRETA
MAITE GURRUTXAGA**

IKASELKAR, 2021

XABIER ETXANIZ ERLE

Benetan bitxia eta gomendagarria Zubizarretak eta Gurrutxagak eskaintzen diguten obra hau! Lehen orria kenduta gainerako guztia espazio berean gertatzen da; antzokian bageunde bezala, irakurleak agertokian (etxeiko sukaldean) jazotakoak ikusi ahal izango ditu.

Hasieran narratzaileak bere burua aurkezten digu: "Nire izena da Edda (...) Ni naiz etxeiko txikiena, gelako txikiena, munduko txikiena, ni Edda Arozena (...) baina nebak esaten dit: 'Edda, Edda, lo-gopeda!' Zergatik ote da? Zertiga teo da?" Irakurleak Eddaren bi ezaugarri nagusi ezagutzen ditu horrela, txikia dela eta hitz egiteko arazoak dituela batzuetan.

Aurkezpenetik aurrera, baina, dena gertatzen da sukaldean. Afaria prestatzen ari dela dei bat jaso eta korrika irten behar du Aitak ospitalera; Danel geratu-


ko da orduan Edda zaintzen. Neskakilak, baina, heldu batekin egon nahi du eta aitari deituko diola dio; nebak ez dio uzten eta orduan amari deitzen dio. Amak haur eskolako albuma begiratzeko esaten dio, Eddak, aldiz, ipuin bat kontatzeko eskatzen amari; eta, horrela, honek hegaztien erregearen istorioa kontatuko dio, nola txepetx txikiak lortu zuen hegaztien erregeina izatea: "Horra hor txikiena bilakaturik handiena".

Istorioak aurrera jarraitzen du eta sukaldeko horma-erlojuak paper nagusia hartzen du kontakizunaren erritmoan. Gurrutxagak espazioaren gelditasuna eta mugimendua ederkiki islatzen ditu; dena geldi dagoela dirudi baina denborak dena aldatzen du apur bat. Horretaz gain, amaieran birramona bisitatzeraz doazenean ere sukaldeko irudia ageri zaigu

ilunetan eta leihotik, urrutian, birramonaren etxeke eszena.

Istorio oso polita kontatzen zaigu eta oso modu poetikoan hainbatetan. Bakarrik gaudenean, babesgabe gaudenean, segundoak luzeagoak egiten zaizkigu, denbora geldoago pasatzen dela sentitu ohi dugu. Eta horixe da Eddari gertatzen zaiona. Tik, tak, bakardadea eta ikara sentitzen ditu neskatoak, harik eta beldurra uxatu eta bera izan arte Danel kontsolatzen duena.

Arestian aipatu bezala, kontakizun bat baino antzezlan baten aurrean gaudela ematen du. Albumaren erabilera, alde horretatik, aparta da istorioan zentratzeko, Eddaren garapena ikusteko eta eguneroko istorio hunkigarriaz irakurlea gozarazteko, narrazio eta ilustrazio aparten bidez. ●



MUSIKA

Santa Anara



RUPER ORDORIKA

XALBA RAMIREZ

Disko bat entzuteko momentuak marka dezake diskoa bera. Zu ez zara bera une bakoitzean, bainatzen zaren ibaiaren pare, eta kanta ba-koitzak badu bere unea.

Ruper Ordorikaren *Amour et toujours*-ekin horrelako zerbait pasa zait. Logelan eguzki epela sartzen zen neguko egun batean entzunaldi berezia izan nuen, eta jo ni ninduen barruraino.

Jakina da Ordorika Kubara joana dela maiz, bere lagun-min eta kolaboratzaile Joseba Sarrionandiaren bisitan. Bertako esperientziari eta doinuei zerbait zor zielakoan edo, zapore eta erritmo kubatarrekin osatutako diskoa da *Amour et toujours* (Elkar, 2021).

Azukre koxkorrak diskoarekin al-

dera daiteke. Kanta politez osatutako disko txiki bat, bitxikeria bat, kapritxo bat kasik. Inondik inora ere. Son kubatarra imitatu baino, bertan busti da Ordorika, eta bere kanta inoiz baino freskoagoak datoz, tonutik atera gabe, tronpeta lagun eta hain ohikoa ez den gitarra elektrikoarekin. Herri txikieta-ko bandak izan ditu gogoan, eta horretan da bereziki ona lan hau, gutxirekin asko egiten du, soberan dena kanpoan uzten.

Ruperren kantei alkandora loreduna jarri, lastozko kapela eta edari hotz bat eskutan. Izan ere, kantautoreek duten izaera triste eta melengarekin ez du zer ikusirik izan inoiz oñatiarrak. Ruperren kanta bizitzaren aldekoak dira, umo-



AMOUR ETA TOUJOURS

RUPER ORDORIKA

ELKAR, 2021

rez betetakoak, edertasuna lagunartean bilatzen dutenarenak. *Haizea garizumakoa* dugu adibide, edo *Bugainbilen usaina*: “Munduan nahi bada zoriona lurrera bota santuari rona”.

“*Amour et toujours* lako errimak zaborretara”, lan hau ez da geratzen klisean, ez ikuspegi turistikoan. Kubaren argazki humanoa egin du, azken batan, gizateria osoarenak diren uneetatik abiatzen dena: “Jendea ilaran, biharkoaz axolik gabe”.

Ilunabarra, lagunartea, denbora igarotzen utzi. Maitemintzeko musika egiten jakin du Ruperrek, agian bere lanik goxoena den honetan: “Hemen ametsetan bezala, mundua pausan da. Zein ona den sentitzea denboratik at bizitza”. Santa Anak dirudi munduko lekuri ederrena. ●



Heldu da kokoa!

AMETS ARANGUREN

Ikusi edizioa *streaming*ez ikusi ondotik, bueltan da Iruinkokoa karriketara.

Iruñeko inauteri euskaldunaren laugarren edizioari harrera ederra egin zioten aurten ere Alde Zaharreko kaleek pasa den otsailaren 27an, igandearekin. Berriz ikusi, entzun, sentitu eta usaindu ahal izan ditugu kokobeltz zein kokoxuriak auzoko izkina denak hankaz gora jartzen.

Zaldiko-Maldiko elkartean dute hitzordua parte-hartzaileek goizeko 8:00etan, elkarrekin gosaldia, jantzi eta eguneko azken detaileak fintzeko. Hor bilda dira dantzariak a.k.a *kokoxuriak*, zirtzilak a.k.a *kokobeltzak*, musikariak a.k.a *Izurritearen fanfarrea*, bertsolariak eta dena ongi joan dadin lanean dabilen logistika taldea a.k.a *logistikoko*. 9:30etarako denak prest, bakoitza bere paperean sarturik. Hasi da zalaparta indaz inda.

Kalejiran auzoko lau espaziotan egin dituzte geldialdiak a.k.a *asalduak*: LABA, Iruña Taldea, Iparla Elkartea eta Matlazeko lagunak bisitatu ondotik abiatu

gara Santa Ana plazara, libertimendua emanen zuten lekura. Asalduetan soberran izan da jana eta edana eta plazara bitarteko bidean kronikatxoak egiten ibili dira bi bertsolariak.

Santa Anara heldu zirkulua osatua dute ehunka jende. Iruinkokoaren gauza ederrenen artean da intrigarena, ez da bakarrik publikoak ez dakiela zer topatuko duen *jeikaldietan*, baizik eta kokobeltzak ez diren gainontzeko parte-hartzaileendako ere sorpresa dela zirtzilek antzeztuko dutena. Horrek gehitzen dio xarma gehien emanaldiari.

Urtean zehar gertaturikoak karikatuzatu eta hirian zeresana eman duten pertsonaiei barre egin edo zirikatzea du helburu inauteriak, norbere buruarengandik hasita. Egurra eman diete aurten, besteak beste, Hedoi Etxarte, Kai Nakai, Chill Mafia, Esporrín, Maya, TERF, GKS, Ernai eta Ion Celestinori. Ikusi ditugu Alde Zaharreko taberna mitikoetako tabernari mitikoak kexuka eta hortik ibi-

li dira ere Pfizer, Tinder, errusiar bat, Reimy, Anuar, Saioa Alkaiza eta zuberotarrak, benetako ekialdea zein den aldarrikatzen azken hauek.

Fin eta gogor aritu dira Irati Majuelo eta Saioa Alkaiza bertsolariak jeikaldietan ikusirikoa eta haien iritzia kantuan ematen. Jeikaldietako bateko protagonista izanik, zailtasun bikoitza Nafarroako txapeldunarendako. Hain ziren sartuak kokobeltzak haienean, ezen zirtzil batek klabikula apurtu duela jeikaldi bukaerako meta batean. Plazako emanaldia bukatu eta ospitalera joan du segituan. Gero, noski, zuzenean joan da etx... E! Inauteriak direla! Festara itzuli da! (Tarte batez behintzat).

Ez pentsa euskaraz, erreferente lokal komunak tarteko eta jarrera kritikoz denok denoi barre egiteko plaza askorik dagoenik hiri honetan.

P.D.: Heldua naizenean kokobeltz izan nahi dut.

Biba Iruinkokoa! ●

Maia Muruaga

IRRATIA FM-AN



ANEKDOTAZ BETERIKO AROA

“Hogei urtetan anekdota asko izan ditugu, irratia urak hartu zuen egun hura memorian geratzen den horietakoa da; egun batetik bestera irratirik gabe geratu ginen, eta egun gutxitan egoerari buelta eman eta jabeak utzi zigun goiko pisutik, sukaldean erredakzio gela txiki bat sortuta eta egongelan muntatutako estudiantik zuzenean igortzeko gai izan ginen... a ze oroitzapenak!”.

“Bi edo hiru administraziopean bizi bagara ere euskarak eta euskal kulturak lotzen gaitu”

Bada hogei urtez, ahots goxo eta irmoa entzuten ari den bidasoarrik. Antxeta Irratiaren hogeigarren urteurrenaren kariatara, bertako kazetari beteranoenatariko bat ezagutzeko parada baliatu dugu: Maia Muruaga (Donibane Lohizune, 1977), “Maia Antxeta” askorentzat. Mikrofono berdea du lagun eta ahotsaren mundua atsegin du, irudiari ihes eginez. Ipar Euskal Herriko kultur kazetari ezaguna den arren gutxitan mintzo da bere lanaz publikoki. Ez dut egunero lankide bat elkarriketatzeko aukerarik izaten, are gutxiago horrelako aitzakiarekin.

 AITZIBER ZAPIRAIN  IRANTZU PASTOR

Nola gogoratzen duzu 2002ko otsaila?

Urduritasunarekin oroitzen dut. Baina bide baten hastapenean izaten den ilusioarekin ere. Garai hartan 24 urte nituen, irratigintzan esperientziarik ez nuen Gure Irratiako lankideen eskutik hasi nintzen mundu hau deskubritzen eta irratiko lanak neureganatzen. Antxeta Irratian sartzen azken langilea izan nintzen, ordurako proiektua mamituta zegoen, baina hastapenetik nire egin nuen, eskualde berezi honetan euskarazko tokiko komunikabide baten beharra agerikoa baitzen. Elkar ezagutza bultzatzea ere beharrezkoa iruditzen zitzaidan.

Nola joan dira hogei urteok?

Konturatu gabe joan dira, baina aldi berean intentsitate oso handikoak izan dira. Garai ezberdinak izan ditu Antxeta Irratiak, garatzen joan den proiektua baita. Herriari begira dago,

eta eskualdeko elkarteekin harremana sendotu dela esango nuke. Hogei urte hauetan aldaketak ere izan dira gure eskualdean, eta euskarak espazio publikoan presentzia handiagoa duela esango nuke, nahiz eta oraindik ere urrats gehiago eman behar diren. Orain arteko ibilbidea aberatsa izan da, bere momentu onekin eta zailekin. Laguntzaile asko pasa dira Antxeta Irratitik eta gaur egun ere berriak gehitzen doaz, eta horrek ematen dio gure proiektuari hauspoa.

Galde daiteke zer den Maia Antxeta gabe, baina zer litzateke Antxeta Maia gabe?

Maia Antxeta gabe beste bat izanen litzateke, irratiak pertsonalki eman didana handia izan baita. Urte hauetan asko ikasi dut eta oraindik ere ikasten ari naiz, arlo profesionalean nahiz pertsonalean. Aldiz, Antxetak ni gabe berdina izaten segituko luke, dudarik gabe.



"Santiagoko zubia egunerokoan zeharkatzen dugun euskaldunok asko gara, eta irratia- ren bidez elkar ezagutza hori bultzatzea oso ederra iruditzen zait".

Tokiko hedabide baten garrantziaz eta funtzioaz kontziente al zinen Antxetan lanean hasi aitzin?

Bai, kontziente nintzen, gure eskualdean elkarren ezagutza eza handia zela sentitzen bainuen. Eta euskarazko tokiko irradi batek ekar zezakeenaz ere ohartu nintzen. Hendaia-rra naiz, bertako ikas- tolatik pasatakoa eta Kanboko kolegioan hainbat urtez egon ondotik Hondarribi- ko institututik ere iragandakoa. Santia- goko zubia egunerokoan zeharkatzen dugunok asko gara, eta nire moduko euskaldunon arteko elkar ezagutza hori eta euskara bultzatzea, bereziki gustuko dudana irratia- ren bidez, oso ederra iru- ditzen zitzaidan. Eta hala iruditzen zait oraindik ere.

Kultur kazetaritzan buru-belarri murgilduta zaude azken urteetan, bereziki Euskal Irratiak federazioan.

Bai, kultur kazetari izatea proposa- tu zidaten orain dela urte zenbaitzuk eta horretan dihardut, gustura gainera. Dela musika, antzerkia, literatura edo zinema, gustuko ditudan arloak dira eta iruditzen zait iparraldean bereziki lan handia dugula euskal kulturaren heda-

penari dagokionez. Euskarazko lanen ikusgarritasunean ekarpena egiten aha- legintzen gara. Euskaraz sortzen den uztza askotarikoa eta aberatsa da, eta ezinbestekoa da Baionan, Donapaleun, Maulen edo Hendaian bizi direnek ho- rren berri ere izatea.

Badago zer ospatu, besteak beste Antxeta Irratiak egoitza berria izango baitu hemendik aurrera.

Bai, hogeitaz urteren buruan baldintza ho- beak eskaintzen dizkigun lokal berrian egoteak poztzen gaitu. Orain Hendaia- ko Intzura auzoan gaude eta egoitza be- rriak indar berria ekarriko duelakoan nago. Lehengo egoitza Hendaia erdigu- nean kokatuta bazegoen ere zaharkitua geratu da, eta baldintzak jada ez ziren egokiak eguneroko lanerako.

Entzuleei zer esan?

Entzuleei eskerrak ematea besterik ez dagokigu, arazo tekniko- en gainetik fi- delak izan direlako asko, eta ikusten ez baditugu ere ondoan somatzen baiti- tugu. Aurten ere Korrika izango dugu- la aprobetxatuz esan nahiko nuke mo- mentu berezia izaten dela guretzat, gure

entzuleekin egoteko tartea eskaintzen baitigu; une hunkigarria eta ederra izat- en da.

Irun, Biriatu, Hendaia eta Hondarribia, berriki baita Bera ere. Zer du bailara honek?

Bailara honek bizi ohitura ezberdinak, euskararen inguruan hizkuntza ezber- dinak eta euskalki ezberdinak ditu, oso aberatsa eta askotarikoa da, eta norta- sun handikoa, esango nuke nik. Mendia eta itsasoa lotzen ditu, herriak eta hiriak biltzen, eta bi edo hiru administrazio- pean bizi bagara ere euskarak eta eus- kal kulturak lotzen gaitu bertakook.

Ttikitik gauza handiak egin daitezke, eta euskaraz.

Bai, eta euskararen normalizaziorako euskarazko komunikabideak ezinbeste- koak dira, euskaraz bizitzeko beharrez- koak baitira. Antxeta Irratian horretan lanean segituko dugu. Eskualdeko el- karte- en parte hartzearekin irratigintza- ri lotutako proiektu oso ederrak, eta gu- retzat handiak, garatu ahal izan ditugu hogeitaz urte hauetan. Bide ederra opa diot Antxeta Irratiari! ●

Garrantzi gutxiko garaien alde

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

"Gerrak bizitzaren tonua jasotzen du, denon barne-bizitza ekintza-eskema soil-soil baten inguruan antolatzen baitu (bi alderdiak) eta, heriotza beti gertuaren ideia azpian, jarduerarik hutsalenei egundoko garrantzi-kutsua ematen die"

Cesare Pavese, *Bizitza lanbide*.

Itzulpena: Maite Lopetegi.

Tanke bat topatu dut neure kafesnean. Hirugarren gerra astea. Galdera existentzialak: pasa den asteburu hau izan ote da lasai-antzean igaro dugun azkena edo hurrengoan ere planen bat egin ahalko dugu, kamuflajezko arroparik inplikatzeko duena? A aukera sakatu baduzu, nora joan nahi duzu? Lehen erantzun zenezakeen faktore neurgarri batzuk erabiliz –eguraldia, gogoia, agenda, sosak-. Orain gerra-parteak ere jokatzeko du, arbitroek Realaren kontra jokatzeko duten bezala. Minutuz minutu morala higatzen dizun Gil Manzano bat da gerra. Ez dizu uzten. Gontzetatik ateratzen zaitu.

Eta bat-batean denak dauka garrantzitsuegia izatearen airea, agian zure burua aurkitu duzulako pentsatzen desastrearen aurretik egingo duzun azken gauza normala zer izango den. "Benetan, horrela galdu behar al zenituen zera baino lehen libre eduki zenituen azken egunak?". Ez, ez diozu zure etorkizuneko ni-ari hori galdetu nahi. Asmatu egin nahi duzu, gogoratzeke moduko zerbait egin, dena pikutara baldin badoa idealizagarria den momentu bat gorde.

Zeren aurreikuspen guztiak ipurdiz gora daude. Hau idazten ari naizen momentuan ez gaude bonben esperoan hemen, Ukrainakoak baino lehenago izorratuko dizu mendi-irteera kazkabarrak; baina gauzak hartzen ari diren abailan, auskalo artikulua paperezko edizioan etxeetara iristen den gosaldorduan zer kalibretako metraila egon daitekeen ezkutatuta harpidedunen



LEONHARD NIEDERWIMMER

croissantetan –nire briko-aholkua: ez egin hozka zuzenean, moztu croissanta barruan zer dagoen ikusteko, beruna ez baita ona hortzentsat–.

Galbahe kulturala ere asko estutzen da erabateko suntsipenaren aukera buru gainean bueltaka hasten denean. Ba al du zentzurik honelako momentu batean argitaratu berri den liburu bat irakurtzeak? Leitu ez dituzun ezinbesteko liburu guztiak kontuan izanda ere bai? Baina, bestalde, Hirugarren Mundu Gerra iristean eskuetan klasiko bat edukitzeak zerbait hobetzen al du? Eta gainera, ze klasiko? Dostoievski aukeratuko bazenu, beste paperen batekin forratu beharko zenuke liburua azala, Siberiaren tamainako lerdoren batek ez zaitzan putinzaletzat hartu? Dilema klasikoago bat: Tolstoi ez al da aukera

hobea? Hirugarren bidea agian, alegia, Gogol? *Krimena eta zigorra, Gerra eta bakea, Arima hilak*. Gerra eta krimena. Gerra eta hilak. Krimenaren arima. Bake hilak. Azkenean nobedadea irakurtzea izango da onena.

Eta laburbiltzen hastea: nostalgia erreakzionarioa omen da, baina azkenaldian etorkizunaren aurpegiak ere ez dirudi *Che* Guevararena. Barkatu, beraz, baina nik faltan sumatzen ditut lehengo garaiak, zeinetan pasa nitza-keen egunak, hilabeteak eta are, urteak, buru nuklearrekin hornitutako misilez batere kezkatu gabe. Garrantzi historiko oso txikiko uneak izango ziren segur aski, baina uste dut jasan ahalko nuela kontatzeko batailatxorik gabe agure-tzea. Beti paratuko naiz, beraz, garrantzi gutxiko garaien alde. ●

2. argitaraldia

Bizitzaren ederra loratu dadila

Jakoba Errekondo

Loreak etxeko poza dira. Zaintzen asmatzeko beharrezkoena, lore bakoitza ezagutzea da. Liburu honek hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu: zein landare aukeratu txoko bakoitzerako, gaixotasunei nola aurre egin, ureztaketa, ongari naturalak nola egin eta nola birlandatu.



25€

Orri kop.: 248

BIZI BARATZEA

ARGIA

EROSTEKO: argia.eus/azoka 943 37 15 45



B A G I N E N B A G G A R A

E M A K U M E A R T I S T A K :
IKUSGARRITASUN(EZ)AREN LOGIKAK
ERAKUSKETA

2021 - 11 - 27

2022 -03 - 13



SAN TELMO MUSEOA
DONOSTIA

ANTOLATZAILE:

LAGUNTZAILEAK:

ERAKUNDE BABESLEA:

PATRONO PRIBATUAK: